

"Erakundeak gehiago inplikatu beharko lirateke laguntza premia duten gizarteko sektoreekin"

Mila Andueza
Caritas > 08



G2a Arrasateko Motorrero Eguna > 29

OÑATI Arantzazuko aparkalekuetan mugak daude domeka goizetan > 03

EKONOMIA Eroskiren 'on-line' dendak iaz %30 eskaera gehiago izan zuen > 06

ARETO FUTBOLA Azken minutuan eta penaltiz, Dribling Zaldibarko txapeldun > 21

BERGARA > JAIA

Bergarako lehen Erdi Aroko Azokak, erantzun ona

TEMATIKOA Saiatu dira azokari merkatal kutsuaz gain, izaera tematikoa ematen; eta euskal ikuspegia ere gehitu diote

EKITALDIAK Udal ordezkariak pozik daude, euren helburua delako herrian bestelako ekitaldiak egitea > 11



HAUR DANBORRADA Herenegun danborrada egin zuten txikienek Arrasateko kaleetan.

JOSETXO ARANTZABAL

Danbor kolpeek hasiera eman diete San Juan jaiari

San Juan jaiak egutegian bihar, martitzena, hasiko diren arren, dagoeneko asteburuan askotako ekitaldiak izan dira Arrasaten: kirol erakustaldiak, pilota norgehiagokak, Motorrero Eguna eta hurren danborrada, besteak beste. Jaiak hastear daudela ez dago dudarik. > 12

ARRASATE > ENERGIA

Goi tentsioko linearen kontra, alegazioak

Debagoienetik pasarazi gura duten Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea elektrikoaren kontra sei alegazio aurkeztu ditu Arrasateko Udalak. Aurkeztu dituzten alegazioen artean, eskatu dute informazio gehiago bidaltzea eta erantzuteko epea luzatzea.

Horrez gain, azpimarratu dute Debagoiena interes orokorreko azpiegitura handi askoren pasabidea ere badaela; eta azpiegitura horiek lur larregi hartzen dutela. > 14

PROBA > TXIRRINDULARITZA

Bi elgetar, lehen 20ren artean 'Quebranta'-n

Elgetako Xabier Aranguren 15. postuan (6:03:05) heldu zen Sabiñanigon Quebrantahuesos proban; eta herrikide Oskar Askasibar 19. postuan (6:03:36).

Aurten ere debagoiendar asko izan dira proba gogor horretan: 169, hain zuzen ere -iaz baino gehiago.

Iaz bi minutu pasatxoko aldea atera zion Askasibarrek, eta aurten 31 segunduko Arangurennek. Barruan, ibarrekoen zerrenda. > 24

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Ekonomia > 06
- Auzoak > 07
- Elkarrizketa > 08
- Iritzia > 10
- Herriak > 11-20
- Kirola > 21-28
- Kultura > 29-32
- Sailkatuak > 34-35
- Telebista-irratia > 37
- Berri-zakua > 38-39
- Azkena > 40

POLITIKA > ALDERDIK

Pello Urizar, EAko idazkari nagusi berria

Atzo, domeka, EAk Gasteizen egin zuen ezohiko kongresuan Pello Urizar arrasatearra aukeratu zuten idazkari nagusi. Urizar zinegotzia da Arrasateko Udalean, eta urte asko darama alderdian lanean. > 05



Pello Urizar atzo, Gasteizen, idazkari nagusi izendatu zutenean.

ARGAZKI PRESS



Pendrive-a opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera



San Juanak 2009

SAN JUAN JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEAN

Eguaztenean, ekainaren 24an, 19:45ean, 21:15ean eta 23:15ean

SAIO BEREZIA

Egubakoitzean, Ekainaren 26an, 22:15ean

BABESLEA:



AZPIEGITURAK > APARKALEKUAK

Arantzazuko aparkalekuetan, mugak domeka goizetan

EGOKITU Aparkalekua egokitu dute eta auto gutxiago sartu arren, erosoago ibiltzea eta autobusek maniobrak egitea ahalbidetu dute

ORDUTEGIA Adinekoak eta zailtasunak dituztenak eguerdian mezatara joaten direnez, 10:30ak baino lehen ezin da autorik aparkatu domeketan

AUTOBUSA Informazio kanpaina egiten dihardute aparkalekuan neurrien berri emanez eta domeketan egun osoz autobus zerbitzua dagoela jakinaraziz

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Arantzazuko aparkalekuak auto ugari jasotzen du urtean barrena eta oro har ondo funtzionatzen badu ere, egun seinalatueta, batez ere igandeetan, trafikoa ez da ondo kudeatzen, Arantzazu Gaur Fundazioko Iker Usonen esanetan. Hortaz, erabaki dute hainbat neurri hartzea.

Arrazoi nagusia da jendeak aparkatu ohi duela nahi eta ahal duen moduan. Iker Usonen esanetan, "aparkalekua modu maximalistan eginga zegoen, ahalik eta plaza gehien izateko. Hortaz, batek gaizki aparkatuz gero, hurrengoak ere; eta horrela, domino efektua sortuz denek, gaizki. Horrek eragiten zuen autobusa iristen zenean ezin pasatuta ibiltzea; eta baziren plastikozko piboteak zapaltzen edo puskatzen zituzten gidariak ere. Arazoen aurrean jendeak komentura jo arren, fraideek ezin zuten ezertxo ere egin".

Bigarren arazo nagusia da, nahiz eta jendeak autoak ondo aparkatu, adinekoak, elbarriak edo mugikortasun arazoak dituztenak iristen direla eguerdi partean, batez ere meza nagusiko orduan, eta elizatik oso urruti aparkatu behar dutela, azken aparkalekuetan.

APARKALEKUA EGOKITU

Hortaz, aparkalekua egokitzea eta hainbat ordutan aparkatzea mugatzea izan dira neurri nagusiak: "Batetik, aparkalekua beste modu batean ulertzea; hau da, santutegiko plaza nagusia izanik, bakoitzak bere tokia izan



Gandiaga Topagune azpian, elizaren aurrean dagoen aparkalekua egokitu egin dute.

IRATI AGIRREAZALDEGI

dezala, baina leku normala: plaza gutxiago eta ondo markatuta; autobusak biratzeko porlanezko islatxoak ipintzea, gidariak autoak gainean ez uzteko; eta jende-

ari eskatzea igandeetan 10:30ak baino lehen aparka dezala plaza nagusitik atzerago. Ez dago zertan sarrerako aparkalekuetan izan beharrik, termometroa dago-

en lekutik atzera aparka daiteke. Batez ere, mendizaleak badira 100 metro gehiago egitea Aizkorrira edo Urbiara badoaz, ez da horrenbeste", azaldu digu Usonek.

Moldaketak egin ostean 90 aparkaleku daude plazan. "Gutxitu egin dira, baina toki bakoitza zabaldu egin da lasai aparkatzeko; elbarriendako ere hainbat toki oso handi egokitu dira; eta autobusa ere hobeto pasatuko da. Gainera, nahi izan da plaza bera ibiltzeko moduko toki bat izatea eta Gandiaga Topagunetik begiztatzen den ikuspegia izatea plaza batena, aparkaleku batena, baino gehiago autoak hor egon arren", esan digu Iker Usonek.

BISITARIEI INFORMAZIOA EMANEZ

Aldaketa horien berri ematen dihardute orain, eta gero ikusi beharko da ea jendeak betetzen duen eskaria. "Ez dugu autokontrola ez den beste kontrol neurririk, ez dugu isunak ipintzeko asmorik. Arantzazun pertsonari garrantzi handia ematen diogu, eta kasu honetan are gehiago. Neurriak jakinda, fio gara jendea ahaleginduko dela betetzen eta betearazten. Baina badakigu zaila izango dela, gure gizartean ohituta gaudelako autoarekin ia ateraino joaten", dio Usonek.

Neurriek jadanik eraginik izan duten galdetuta, Iker Usonek esan digu oraindik informazio fasean daudela: "Domeketara mugatu dugu orduaren neurria, baina domeketan mendizaleak ere gehiago dira eta tokatu zait mendizaleek kartela ikusi arren, ez errespetatzea. Baina menditik jaitzitaokan papera irakurri eta oharituko ziren gaizki aparkatu zutela. Papertxoak ipini ditugu autoetan eta hor azaltzen zaie gidariei domeketan 10:30ak aurretik ezin dela han aparkatu eta badutela autobusez Arantzazura igotzeko aukera".

AUTOBUS ZERBITZUA DOMEKETAN

Izan ere, autobus zerbitzua dago Oñatitik Arantzazura eta Arantzazutik Oñatira, 08:00etatik 20:00etara bitartean, orduro domeketan. "Oñatikoendako edo ingurukoendako badago Oñatin, herrian, aparkatzeko toki gehiago eta gero Arantzazura joateko autobusa hartzea litzateke bidea; horrela auto gutxiago izango litzateke. Denak autoz igo arren ere, Zelai Zabal azpiko aparkalekuetan auto mordoa kabitzen da; baina autoz atera iritsi nahi dugu denok", dio Iker Usonek.

Neurriak abian dira eta aurrerantzean ikusi beharko da auto gidariak kasurik egiten dieten ala ez.

BISITARIAK

AUZOTARRAK



Mikel Labaka
Bergara

Ni ez naiz sarritan etortzen Arantzazura, baina ondo iruditzen zait leku batzuk adinekoendako gordetzea. Hala ere, uste dut mendizaleek ere izan behar dutela besteek adinako aukera.



Iban Martin
Leioa

Nahiz eta sakrifizio pixka bat egin behar dugun, ondo iruditzen zait neurriak hartzea asteen behin eta ordu batzutarako izanik; beti ere zailtasunak dituztenei eta adinekoei laguntzeko bada.

"Autobusek ez zuten maniobrak egiteko lekurik eta aparkalekua egokitzea ondo dago"

Arantzazura bisitari asko joaten da, baita makina bat mendizale handik Urbiarako edo Aizkorrirako bidera abiatzera. Baina baserri auzoa izanik, auzotarrengan ere badute eragina aparkalekuan hartu diren neurriek. Arantzazuko auzo alkate Javier Arregik esan digu konponketak egiteari ondo irizten diotela: "Autobusek ez zeukaten maniobrak egiteko lekurik, eta horri erreparatuta aparkalekuan moldaketak egitea ondo ikusten dugu. Orain auto gutxiago aparkatzeko tokia dago, baina autobusari lehenasuna emateko da eta hala izan behar da", dio Arregik.

Bestalde, ordutegiak mugatzearen kontua ere hor dago eta panelekin jakinarazpenak egiteko neurria begi onez ikusten dute. Hala ere, arazoa denik ez dute ukatzen: "Mendizaleek goiz joaten direnez, hartzen dute Arantzazuko eliza aurreko lautadaren zati handi bat eta gero adineko jendea meza nagusira doanean beherago utzi behar izaten du autoa eta hori arazoa izaten da", esan digu Javier Arregik.

Azaldu digu, baita ere auzotarrak ez zeudela ados Frantziskotarrek piboteak ipintzeko zuten proiektuarekin: "Montserraten edo Estibalitzen bezala aparkalekua piboteekin mugatu nahi zuten eta hori ez genuen onartzen auzoko bizilagunok, Arantzazuko aparkaleku publikoa delako".



Irudian, Appalde elkarteko presidente Felipe Antonio Igartua.

GOIENKARIA

Felipe Antonio Igartua > Appaldeko presidentea

"10. urteurrena dela-eta, urria aldera, elkarteko kideak batzeko bazkaria egingo dugu"

MIRIAN BITERI > OÑATI

Appaldek -Debagoieneko aurrejubilatu eta pentsiodunen elkar-
te- hamar urte beteko ditu laster. 1999ko ekainaren 28an, elkartearen aurkezpen ofiziala egin zuten Oñatiko kultura etxean. Datozen lerroetan elkartearen ibilbideaz eta egungo aldarrikapenetaz berba egin du Felipe Antonio Igartua presidentea.

Appaldek hamar urte betetzen ditu. Sorreratik zer bide egin du elkarteak?

Sortu eta jarraian, politikoe-
kin hartu emanak egiteari ekin genion. Hartu emanez gain, manifestazioetan eta elkarretaratzetan parte hartu izan dugu; Madrilen, esaterako, hiru bider egon gara.

Zer da horietan aldarrikatu dena? Eta hamar urtetan lortu duzuen?

Garai hartako aldarrikapenak eta gaur egungoak berdinak dira. Baina aurrera pausuak eman ditu-

gu. Alargunekin, esaterako, lortu dugu pentsioarekin portzentajea arautzeko oinarriaren %45a izatetik, %52ra igotzea. Baina %70 izatea eskatzen dugu; %52ko pentsioarekin ezin izan da-eta bizi.

Aurre-jubilatuak, bestalde, orain osagarria kobratzen dute. Horrekin ere ez gaude konforme, ogi apurrak direlako. Penalizazioa bizitza osorako dugu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen pentsioak izan behar zirela 600 eurotik gorakoak. Hor-

"Gaur egun, Appalden 111 kide gara, gehienak Oñatikoak eta Arrasatekoak dira"

"Politikoeak onartu dute pentsioak oso txikiak direla; baina, guk hor jarraituko dugu"

taz, esan genezake politikoeak mentalizatuta daudela gaiarekin. Dena den, esan beharra dago, guztiak duela letra txikia eta hortaz, lan asko dagoela egiteke. Politikoeak onartu dute gure pentsioak oso txikiak direla; baina, guk hor jarraituko dugu gure aldarrikapenekin.

Appaldek zenbat kide ditu gaur egun?

Egun, 111 kide gara; gehienak Oñatikoak eta Arrasatekoak dira. Azkenaldian behera egin du kopuruak, kideak hiltzen direlako. Guk, dena den, jarraitzeko asmoa dugu.

Urteurrena dela-eta, ospakizun-
egitea aurreikusituz duzue?

Bai, egingo dugu. Appaldeko kideak batzeko asmoz, bazkaria egitea pentsatu dugu; baina oraindik zehaztu barik dago guztia. Dakiguna da udako oporren eta Oñatiko jaien ostean izango dela, urria aldera.

POLITIKA > EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

Irregularitasunak argitzeko, Egia Nahi Dugu manifestua

Sinadurak batzen dihardute, Iniziatiba Internazionalistaren botoen harira

www.egianahidugu.org webgunean izango dute aukera. Sinatzeaz gain, horren gaineko informazioa ere topatuko dute.

5.500 LAGUNETIK GORA

Dagoeneko 5.500 lagunek eta 120 taldetik gora egin dute bat. Manifestuan, besteak beste, gogorarazten da hainbat hautagaitzari bereak ez ziren botoak esleitu dizkiotela eta balio-gabe edo nulu bezala zenbatu dituztela berez baliogabeak ez ziren botoak. Boto zurien eta baliogabeen kopurua asko handitu delako ere susmoa dute.

M.B. > BERGARA

Europako hauteskundeetan Espainiako Estatuan Iniziatiba Internazionalistaren botoekin atzemandako irregularitasunak argitzeko eta egungo egoera ezagutarazteko *Egia Nahi Dugu* manifestua kaleratu dute. Horrekin bat egiteko interesa dutenek

HEZKUNTZA > MU

Goi Eskola Politeknikoan diplomak banatu dituzte

Eguaztenean 2007/08 promozioko zazpi espezialitateko 107 ikasleek jaso zuten titulua

M.B. > ARRASATE

Eguaztenean, joan den urtean Goi-mailako Heziketa Zikloko 107 ikasleri diplomak entregatu zizkion Mondragon Goi Eskola Politeknikoak.

Hain zuzen, 2007/08 promozioko zazpi espezialitateko ikasleek jaso zuten diploma: Industria Ekipoen Mantentzeko 33 ikaslek, Mekanizatu bidezko Produkzio 16k, Proiektu Mekanikoen Garapeneko 22k,

Sistema Informatikoen Administrazio 7k, Aplikazio Informatikoen Garapeneko 2k, Telekomunikazio eta Informatikako Sistemetak 9k eta Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoetako 18 ikasleek, hain zuzen.

Ekitaldian, besteak beste, Dualia enpresako Jesus Maria Perez Usabiagak *Ideiatik proiektura* izeneko berbaldia eskaini zuen.



Eguaztenean egin zuten ekitaldia Goi Eskola Politeknikoan.

GOIENKARIA



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Pello Urizar > EAko idazkari nagusia

"Aztertu behar dugu zergatik euskaldunok ez garen gai gure artean akordioak egiteko"

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Pello Urizar arrasatearra EAko idazkari nagusi aukeratu zuten atzo, domeka, alderdiak Gasteizen egin zuen ezohiko kongresuan. Urizarrek Arrasateko Udalean, ahal duen bitartean, zinegotzi izaten jarraituko duela jakinarazi du.

Idazkari nagusia zara. Pozgarria izan behar da hala aukeratu izatea...

Batzar nagusirako eta batzorde eragilerako hautagaitza bakarra egon da, gurea. Hortaz, bozketa barik onartu da. Eta pozgarria da, ikusten delako guztion artean ahalegina egin dugula. Hainbat zailtasun izan ostean, kritika eraikitzailea egin dugu eta denok aurrera egin gura dugu zentzu berean.

Arrasateko zinegotzi karguarekin, zer asmo daukazu?

Printzipioz, ez dago bateraezintasunik, eta nik ulertzen dut konpromiso bat daukatela Arrasateko herriarekin. Ahal dudan bitartean, jarraitzeko asmoa dut.

Alkarbide sortu izanak neurri baten EA ahuldu du, baina epe ertainera alderdia indartu egingo du, hala?

Ez da sekula pozgarria izaten bidelagunak galtzea, baina egoera argitu egin da eta ikusi da orain gaudenok zentzu berean tiratuko dugula. Nekagarria izan da alderdiak erabakitakoa beti ez errespetatzea. Orain, jendea ilusioarekin dago.

Zeintzuk dira EAk emango dituen hurrengo pausoak, epe motzean dituzuen helburuak?

Beste alderdi abertzaleekin batera, hausnarketa egin beha-



Pello Urizar atzo, domeka, EAK egindako ezohiko kongresuan.

ARGAZKI PRESS

"Euskal alderdion arteko antzekotasunak aurkitu eta batera lan egin behar dugu"

"Zinegotzi izaten jarraituko dut, arrasatearrekin konpromisoa dudalako"

rean gaude alderdi estatalek Euskal Herria estatu gai nagusi dutelako. Aztertu behar dugu zergatik euskaldunok ez garen gai akordioak egiteko.

Eta zuek subiranotasunaren alde jarraitzen duzue, ezta?

Bai. Sekula ez dugu hori alde batera utzi. Lehenengo kongresuan hala adostu genuen, estatu independente bat sortu gura genuela. Ibarretxerekin gutxienekoetan bat egiten genuen, baina orain EAJk ez du hori gura.

Helburu horren bidean, beste alderdiekin elkarlanik aurreikusten duzue?

Elkarlana beti da komenigarria. Giza eskubideei utsita eta bide politiko eta demokratikoak erabilia, euskal alderdiok daukagun antzekotasunak aurkitu eta batera lan egin behar dugu.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

Testuinguru eta kokapenaren garrantzia

Orain dela urte batzuk oporretan izan nintzen Errumaniar. Gustatu zitzaidan lurralde hura, nahiz eta oso dekadentea izan eta korrupzio ugari egon. Hori da txarrena; horren ondorioz, zaila dela hango jendeak aurrera egitea. Beno, harira: Errumaniako jende jatorra ezagutu genuen, eta oso bitxia iruditu zitzaidan batek baino gehiagok azaltzea kanpora joatean errumaniarrak direla esateak lotsarazten dituztela. Euren esanetan, herritik alde egindako hainbatek (ez guztiek, gehitzen dut nik) ospe txarra eman diete gainontzekoei.

Lotsa horren harira, aspalditik esaten dut nik kanpoan nabilenean euskalduna naizela; eta gero eta gehiago lotsaraziko ninduke espainiartzat joko banindute. Azkeneko adibidea, gertukoena aipatzearen, Europako hauteskundeena.

Azken aldian, barra-barra dabilta komunikabideak bonbardatzen Irango hauteskudeen ustezko irregulartasunen harira. Jakina da lurralde hori *Gaizkiaren Ardatza* dela AEBren ustez, eta seguruenik CIA eta antzekoak ibiliko dira han desoreka lortu guran.

Gu, bitartean, *Inozoen Ardatza*-n bizi ei gara; eta I. Munduan XXI. mendean ez da ezer gertatzen halako herrialde baten Iniziatiba Internazionalistaren auskalo zenbat boto nonbaiten galdu direnean; are gehiago, jende askok ez daki ezer, komunikabideek ez dutelako kontatu gura.

> Europa

Sinesgaitza iruditzen zait Europako Parlamentuak Espainiako Gobernuari kontuak ez eskatzea; botoen zenbatzearen inguruan salatu diren irregulartasunak behar den moduan ikertzea eta argitzea da gutxienekoa

> Lupa non jarri

Askotan gurago izaten dugu (edo izaten dute) urrunekoari begiratu eta hangoa salatu, hemengoa, gertuko, ondo aztertu beharrean. "Horrek gauzok beste herrialde batzuetan ematen dira, ez hemen", esaten dute askok

Eduardo Antonio Puellesen erailketa salatzen bilkurak egin zituzten

Herenegun kontzentrazioak egin zituzten hiriburu eta herrietan Eduardo Antonio Puelles poliziaren erailketa salatzen. Ibarrean Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako eta Arrasateko udaletxeen parean bilkurak egin zituzten. Arrasaten, gainera, Isaias Carrascoren senideak, PSE-EEko presidente Manuel Huertas, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero eta Arrasateko PSE-EE eta EAJko ordezkariak izan ziren, besteak beste.



MAIDER ARREGI

IKERLAN > 2009-2012 PLAN ESTRATEGIKOA

Enpresekin hartu-eman sendoagoa izango du Ikerlanek

Enpresekiko harreman jarraia krisi ekonomikotik irteteko gako moduan ikusten du Ikerlanek

Ikerlanen 2009-2012 Plan Estrategikoaren oinarria da enpresekiko kolaborazioa

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ikerlan-IK4 ikerketa teknologiko zentroak enpresekin dituen harremanak sendotuko ditu, eta hori egingo du bere lehiakortasuna handitzeko eta krisialdi ekonomikotik "indartuta" irteke. Horretarako, "ezinbesteko-tzat" jotzen du Ikerlanek berrikuntza teknologikoa, produktu, prozesu eta zerbitzu lehiakorrek sortzeko tresna gisa.

Hori dira Ikerlanek joan den astean aurkeztutako 2009-2012 eperako Plan Estrategikoak batzen duen puntu garrantzitsuenetariko bat.

"ENPRESEN BIDE-LAGUN"

Plan Estrategiko horrek berresten du ezagutza eta enpresetarako transferentzia "modu orekatuan" egin behar diren ideia, "jarduera bat bestearekiko gailendu gabe". Horrela, "berrikuntzaren aldeko apustuan enpresen lagun" izateko borondatea erakusten du Ikerlanek, "bai enpresa txiki edo ertainen, bai bultzatzeko gaitasun errekonozitua duten enpresen, bai etorkizunean potentzial handia erakusten duten negozio berrien" kasuan. Horiekiko harremana jarraitua izango da, eta ez unean unekoa.

IAZ, 19,6 MILIOI

Plan Estrategikoa aurkeztearekin batera, 2008ko ekitaldiko datu ekonomikoak jakinarazi zituen Ikerlanek. Hala, iaz, diru-sarreraren bolumena aurreko ekitaldia baino %2,6 handiagoa izan zela jakinarazi zuen zentroak; guztira, 19,6 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen. Kopuru horretatik, 11,4 milioi enpresekiko kon-

tratupean egindako Berrikuntza eta Garapen proiektuetatik etorri ziren, eta 6,9 milioi, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europako Batasunak lagundutako ikerketa orokor eta estrategiko proiektuetatik. Mondragon Korporazioaren babesa ere nabarmendu zuen Ikerlan zentroak.

DATUA

%2,6

GEHIAGO

Ikerlanek 19,6 milioi euroko diru-sarreraren bolumena izan zuen 2008an, aurreko ekitaldia baino %2,6 gehiago. 11,4 milioi B+G-tik etorri ziren, eta 6,9, erakundeek lagundutako ikerketatik

DATUA

%21

EKIPO-ONDASUNETATIK

B+G-ko irabazien %21, gehiena, ekipo-ondasun ez industrialetatik etorri zen iaz; %19, energiatik; %13, etxetresna elektrikoetatik; %14, garraiotik; %12, ekipo-ondasun industrialetatik.

KRISIA

Acede-k %10eko jaitsiera iragarri du

L.K. > ARRASATE

Etxeko tresna elektrikoaren sektoreak zifra ipini dio krisiari, eta aurten, bai salmentak, bai enplegu-bolumena %10 jaitsiko direla aurreikusten du. Hala jakinarazi du Acede-k, Euskadiko sektoreko klusterrak.

Talde horrek 11 enpresa hartzen ditu, horietatik bederatzia, Gipuzkoakoak; denen artean, sektorearen %85 ordezkatzeko dute eta Euskadin 9.200 langile dituzte.

IAZ, %15-%20 GUTXIAGO

Iaz, Acederen datuen arabera, 2.500 euro fakturatu zituen, 2007an baino %15-%20 gutxiago. Enplegua %15 jaitsi zen. Hala ere, enpresok kanpoan ere ezarrita egoteak ekarriko du enplegu galera txikiagoa izatea, betiere, klusterrak dioten arabera.

Aitor Perez > LKSkon Selekzio eta Formakuntza kudeatzailea

"Guk egiten ditugun selekzio prozesuen %60etan, enpresek ingelesa eskatzen dute"

L.K. > ARRASATE

Adituek uste dute ingelesa menderatzea gero eta garrantzitsua izango dela Boloniatik datorren erreformarekin eta gaur egungo egoera ekonomikoaren eraginez. Horren gainean hitz egin dugu LKSkon Aitor Perezekin.

Ingelesak zenbaterainoko garrantzia du enpresendako?

Momentu honetan egiten ditugun selekzio prozesuen %60k baino gehiagok hizkuntza eskakizuna dute; eta, euskaraz gain, ingelesa eskatzen da. Gainera, ingeles maila altua eskatzen da.

Debagoiengan badago, orokorrean, maila hori?

Azken urteotan, unibertsitate eta ikastetxeetan ahalegin handia egin da arlo horretan, eta horren emaitzak orain gabiltza ikusten: kooperatibetan dauden profesional gazteek, 23-35 urte artekoek-edo, ingelesa ezagutzen dute. Mondragon Unibertsitatean ematen den formazio tekniko eta humanistikoko hizkuntzekiko sentsibilitatea dago.

Boloniako erreformarekin, sentsibilitate hori areagotu egingo da?

Mondragon Linguako eta MUko irakasleek esaten dute baietz. Azken baten, enpresek eskatzen dutenarekin bat egin nahi du Boloniak, eta ikasleei nazioarteko esperientzia bat eman, batetik, beste esparru geografiko eta kultural batzuk bizi izateko; eta bestetik, hizkuntzak pentsaera zabaltzeko aukera ematen duelako.


Eta euskara non geratzen da?

Guk ikusten dugunaren arabera, Gipuzkoako enpresa gehienek euskara dute beti lehenengo hizkuntza eskaera gisa; jatorrizko lehen hizkuntza moduan agertzen da gure postu guztietan.



Aitor Perez.

LKS



Eroskiren on-line supermerkatuan erosketak egiten.

GOIENKARIA

EROSKI > INTERNET BIDEZKO SALMENTAK

Eroskiren 'on-line' dendak, %30 eskaera gehiago iaz

Gipuzkoa eta Bizkaia daude zerbitzu hori gehien erabiltzen den lurraldeen artean

L.K. > ARRASATE

Eroskiren on-line supermerkatuaren (www.compraonline.grupoeroski.com) da webgunea) eskaera %30 igo zen 2008. urtean, Eroski Taldeak jakinarazi duen arabera. Gipuzkoan eta Bizkaian erabiltzen da gehien, Madril eta Balear Uharteekin batera, baina Iruñean, Mallorcan, Zaragozan eta Madrilen igo da gehien bezeroen demanda. Eroski Taldeak esan duenez, erabakigarria izan da Madrilen zerbitzu hori ematen hasi izana: hala, lehenengo urtean, zerbitzuaren eskaeraren %20 handiak etorri da.

KUOTA, HASIERATIK FINKOA

Eroskiren Interneteko supermerkatuak eguneroko 8.000 produktutik gora eskaintzen ditu, eta gaur egun Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan, Asturiasen, Balearretan, Kantabrian, Errioxan, Malagan, Zaragozan eta Madrilen erabil daiteke.

Zerbitzu horrek badauzka zazpi urte. Artikuluak prestatu, manipulatu, batu, gorde eta garraiatzeagatik kobratzen den kuota beti berbera izan da, hasieratik: eskaera bakoitzeko 5,98 euro. Gainera, aste bateko epea eska daiteke erosten denetik jasotzeko unera arte.

auzorik auzo

GALARTZA > Gipuzkoa eta Arabaren arteko mugatik gertu dago Aretxabaletako Galartza auzoa. Paisaia eta eraikin ederrez goza daiteke; adibide esanguratsuenak Galartzako dorretxea eta Santa Luzia eliza dira.



Ion Murgiondoren atzealdean dagoen eraikina da auzo-lokal bezala erabiltzen dutena.

A.EZKIBEL

Ion Murgiondo > Galartzako auzo-alkatea

"Gure auzoan lehenengo sektorea oso aktiboa da, pisu handia dauka nekazaritzak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Ion Murgiondo Aretxabaletako Galartza auzoko auzo-alkatea da azkeneko bi urteotan. Oraindik beste bi urte geratzen zaizkio, hortaz, zeregin horretan. Arazoren bat dagoenean, edo jaiak eta bestelakoak antolatzeke elkartzen dira auzotarrak. Galartzako jaiak abenduaren 13an ospatzen dituzte, Santa Luzia egunean.

Gaur egun auzoaren egoera zein da; gora edo behera egin du auzoko biztanleriak?

Esan behar da auzoko biztanleriak gora egin duela azkeneko urteetan. Gaur egun 17 baserri daude Galartzan, eta lagunak, ostera, 63 inguru. Batez ere ume kopuruak egin du gora; horrek biztanleria gehitu du. Aretxabaletako auzoen artean biztanle gehien duen auzoa dela uste dut.

Bestalde, auzoan oso giro ona dago, auzo bizia da Galartza.

Nekazaritzak indar handia du auzoan. Ez da hala?

Bai, gure auzoan lehenengo sektorea oso aktiboa dela azpimarratu behar da. Baserri gehiengotik, kalean lan egiten duten arren, nekazaritzak pisu handia du. Behiak, ardiak... ditugu, eta horiekin haragia eta gazta egiten dugu. Bestalde, ondo zaindutako baratza daude auzoan. Gure kasuan, gu baserrietik bizi gara.

Bestalde, garai batean ez zegoen lanbide konkreturik auzoan. Nekazaritza eta artzaintzatik bizi zirela esan daiteke. Bitxikeria bezala, esan behar da errotarik ere ez dela egon izan auzoan; inguruko auzoetako errotara eramaten zen alea ehotzera.

Zein da auzoak duen arazo nagusia?

Orokorrean, arazoa da bigarren mailako herritar bezala tratatzen gaituztela. Beste herritarrek beste edo gehiago ordaintzen dugu eta jasotzen dugun zerbitzua, ostera, askoz eskasagoa da. Guk ditugun betebeharrak berdinak dira, baina zerbitzuak ez. Adibidez, internet konexioan argi ikusten da hori.

Bestalde, autobidearen lanek ere arazoak sortu dituzte. Gainera, orain zabaldua dagoenez, jendeak uste du amaituta dagoela; baina, oraindik autobideko obrek

kaltetutako bide eta lur sailak txukundu barik daude. Garbitzea falta da.

Auzo lokala konpontzea da auzotarrek duen hurrengo asmoa?

Bai, auzo lokal bezala erabiltzen dugun eraikina, auzolanean eraikia izan arren, elizbarrutiarren izenean dago. Orain egoera kaxkarrean dago. Gure asmoa da lokala erosi eta konpontzea, auzotarrak elkartu eta auzoan antolatzen diren ekintza eta jarduerak garatzeko toki egokia izan dezagun.

Kanpotik datorren bisitariari zer erakutsiko zenioke? Zer eskaintzen du auzoak?

Galartzako dorretxea dago, XIV. mendeko dorrea dena. Egitura aldetik balioa duen dorrea da; baina, nire ustez sistema feudalaren erakusle da.

Bestalde, oinez nahiz bizikletaz egiteko ibilbide politak daude Muru-Gain mendira. Arrasatetik, Untzillatik eta Aretxabaletatik dago aukera gure auzora etortzeko.

Auzora datozen bisitariari animatuko nituzke auzokoekin berba egitera, galdetzerara. Auzoaren historia, egungo egoera eta bitxikeriak jakiteko biderik zuzena eta jatorrena hori dela uste dut. Dorre eta elizak baino esanguratsuenak dira pertsonak.

"Aretxabaletako auzoan artean biztanle gehien duen auzoa dela uste dut Galartza"

"Bisitariak animatuko nituzke auzokoekin berba egitera, galdetzerara"

ASTELEHENEN
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A

Mundumira

Mundumirako pack-a.

BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



UMEENTZAKO PUZZLEA



Argitxo eta bere lagunaren puzzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.



KAMISETA

skunkfunk

Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.



PENDRIVE

Goiena

Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hailerik zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Mariaren Lagundiko mojekin | tu zen Mila Andueza bergararra. | are gehiago euren herrialdetik | Egoera zailean diren hemengo
pobreziaren gaineko ikastaro | Laguntza beharra dutenendako | urrun diren etorkinendako. Kri- | gero eta familia gehiagok jotzen
bat egin ondoren, Caritasen sar- | ezinbesteko makulua da Caritas, | siaren eragina ere sumatu dute. | dute Caritasera.

Mila Andueza > Bergarako Caritaseko kidea

"Erakundeak gehiago inplikatu beharko lirateke laguntza premia dutenekin"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Caritasen duela 20 bat urte hasi zen lanean Mila Andueza. Beste zazpi lagunekin eta Santa Marina zein San Pedroko parrokoekin batera, harrera zerbitzuan dabil. Hilean bi aldiz jendearen premiei erantzuten saiatzen dira Komenio lokalean. Horrez gain, Oscar Romero Solidaritza Taldeko kidea ere bada Andueza. Herenegun, Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundeak Arrasaten egindako urteko batzar orokorrean izan zen.

Zein da Bergarako Caritasen egoera gaur?

Nagusiki hiru zerbitzu eskaintzen ditu Caritasek Bergaran; alde batetik etorkinei zuzendutako zerbitzua, Sierbetan eskaintzen dena (batez ere lana topatzen laguntzeko orduan lan ikaragarria egin duena azken urteotan; horren adibide dugu nagusiak zaintzen ibiltzen diren etorkin asko eta asko); bestetik, arropategia (arropak batzen dituzte Sierbetan bertan, urte osoan: 943 76 11 98); eta, azkenik, harrera zerbitzua. Ni horretan nabil lanean.

Harrera zerbitzuan zazpi lagun gaude gaur egun: bi gizon eta bost emakume. Guregana laguntza eske datorren jendeari oinarrizko laguntza ematen saiatzen gara. Hilean bi aldiz eskaintzen dugu harrera zerbitzua Komenio kaleko lokalean: hileko lehen eta hirugarren martitzenetan, 18:30etik 19:30era. Juan Kruz Mendizabal eta Inigo Mitxelena apaizen laguntza ere badugu. Bestalde, hileko lehen astelehenean egiten dugu bilera, 20:00etan; esan beharrik ez dago gurekin kolaboratu nahi duten guztiek ateak zabalik ditugula. Lanerako gertu dagoen jendea beti eskertzen da gurea modukoa diren taldeetan.

Zer nolako jendea hurbiltzen da zuengana?

Egoera ekonomiko zailean diren etorkinak batez ere. Krisiaren ondorioz, gero eta lan gutxiago dago eta etorkin askok zailtasun handiak dituzte aurrera egiteko. Kontuan izan, askotan ez daukatela alokairuaren kontraturik: etxebizitzatan, hainbat kasutan, jende dezente pilatzen da (alokairuen gehiegizko prezioaren ondorioetako bat horixe da); eta, beraz, ez daukate Diputazioan dirulaguntza eskatzeko auke-



Mila Andueza.

E.M.

CARITAS

"Laguntza eske datorren jendeari oinarrizko laguntza ematen saiatzen gara"

rarik. Beste alde batetik, lan baldintza eskasak izaten dira tartean kasu gehienetan (ordu gutxi-ko kontratuak eta horrelakoak)... Logikoa denez, egoera horretan benetan zaila da aurrera egitea.

Gehienbat jende gaztea dator guregana, 25-30 urte bitartekoa, eta normalean emakumeak iza-

ETORKINAK NAGUSI

"Gehienbat jende gaztea dator guregana, 25-30 urte bitartekoa, eta normalean emakumeak"

ten dira laguntza eskatzera datozenak. Bitxia da: askotan galdetzen diegun senarrengandik, ea non diren, baina emakumeak etortzen segitzen dute.

Etorkinak nagusi diren arren, krisiaren eragina nabaria da, eta zailtasun larriak dituzten hemengo gero eta familia gehiagok

BOLUNTARIO ESKE

"Gurekin, Caritasekin kolaboratu nahi duten guztiek ateak zabalik dituzte"

jotzen dute Caritasera. Azkenaldian hori sumatu dugu eta aurrerantzean zerbait asmatu behar da horri nolabaiteko freinoa jartzeko.

Zer nolako laguntza ematen diezue eta zer nolako baldintza dira beharrezkoak Carita-

sengana jo ahal izateko laguntza eskatzeko?

Bueno, beraien egoeraren berri ematen duten zenbat eta agiri gehiago ekarri, hobeto. Baina askotan oso zaila gertatzen zaie hainbat agiri eskuratzea (burokraziaren errua ere bada neurri handi batean) eta ulertzen dugu hori. Esaten digutena sinistu beharrean gaude, ez dago besterik. Azken baten, ez gara heltzen euren egoera zehatz-mehatz ezagutzera.

Eta laguntza zertan datza?

Laguntza premia duen jendeari oinarrizko laguntza ematen saiatzen gara: hain zuzen ere, hilabete osorako erosketa bonoak banatzen dizkiegu (oinarrizkoa elikagaiak eros ditzaten akordioa daukagu Bergarako supermerkatu batekin aspalditik). Egiten dugun harrera bakoitzean (hilean bi dira) 25 bat lagun etortzen dira guregana eta pare bat orduz izaten gara beraiekin. Eta lehen esandako moduan, Bergara bertako jendea ere etortzen hasi da, gero eta gehiago gainera. Krisiaren ondorioak dira.

Zein da Udalarekin duzun harremana? Dirulaguntzarik jasotzen duzue?

Zerbitzu sozialen esparruan dabilzan taldeendako dirulaguntzak ematen ditu Udalak, baina zer gertatzen da? Gero eta talde gehiago gabela eta dirulaguntzak murriztuz doazela.

Dena dela, instituzioak gehiago inplikatu beharko liratekeela uste dut. Denok dakigu gauzak geldo doazela zenbait arazori irtenbideak bilatzeko unean. Egoera larrian dagoen jendea ezin da bi hilabete zain egon agiri bat edo dirulaguntza bat jasotzeko. Eta bitarte horretan zeinek heltzen dio arazoari? Caritasen ez balu ematen duen zerbitzua emango, ziur naiz udaletxeko eskaileretan laguntza beharra duen jendea pilatuko zela.

Bestalde, Udaleko dirulaguntzez gain, partikularren ekarpenak ere jasotzen ditugu eta elizetan ere kopuru dezente jasotzen da. Caritasekoak, guztien laguntza eskertu beharrean gaude.

Lan eskergarria eta gogorra ere bai...

Bai, nahiko zenuke denera heltzea, baina normala denez gure mugak dauzkagu. Edozelan ere, ahal duguna egiten dugu, gure borondate onenarekin.

ALDEKO AURREZKIA ALDEAN



Interesik gardenena.

Aurtengo udan, gozatu interesaz alde zurretik. Hondartzan nahiz mendian, etxean zein oporretan, baina beti ere teknologia, diseinu eta erosotasun handiko punta-puntako produktu berriak erabiliz. Aukera ezazu zeure interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutzaren 901 333 555 zenbakian, kutxa.net-en edota kutxaren kutxazainetan.

Aukeratu zer eraman

Zein lote duzu nahiago: entsalada-ontzia + 4 katilu, ala pitxerra + 4 edalontzi? Hobe kolore gorrian dekoratutako beirazko sorta osoa eramaten baduzu. Eta hondartzako eskuoihala baten (PRIVATAren 2 modelo edo Realaren modelo bat), hondartzako etzaulki baten edo kamera digital baten arteko aukera ere egin dezakezu. Kontsulta itzazu baldintzak.



zer nahi duzu bihar?

kale inkesta


Zein iritzi duzu zentral nuklearrei buruz? Ondo iruditzen zaizu Garoñakoa ixtea?

Ander Laborda
Langilea
Bergara

Ixtearen aldekoa naiz, uste dut badaudela aukera garbiagoak eta ekologikoagoak, eta normala iruditzen zait inguruan bizi direnak kezkatuta egotea. Baina zentral nuklearreko langileak ere ezin ditugu ahaztu.

Miren Errasti
Ikaslea
Bergara

Zentral nuklearren alde ez nago, ez dut uste ezer onik ekarri dezaketarik. Beste alternatiba batzuk bilatu behar dira eta beharginak horietan enplegatu. Garoñakoa 2011n itxiko dutela? Inoiz ez da berandu.

Iker Bereziartua
Langilea eta ikaslea
Lazkao

Garoña ixtea erabaki ona da, printzipioz. Ez dakidana da ze beste energia alternatibo potentziatzen diren. Eta beste aukera horiek zer suposatzen dute guretako, gehiago ordaintzea? Eta, prest gaude horretarako?

Martin Jimenez
Langilea
Lasarte

Garoñako zentral nuklearra bonba bat da, itxi egin behar da, lehenbait. Baina, behin hori eginda, zein bide jarraituko dugu? Badugu beste energia iturri propiorik? Ikusi egin behar Garoñakoa ixten duten.

zorroztailea



Elena Laka

Zapatu ingelesa eta lau asteak

"Diputatuen Kongresuko Berdintasun Batzordeak CIUren lege proposamena onartu du. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera lau asteak izango da aitatasun-baimena".

eitb.com > 09-06-19



Ni jaio nintzanean, sasoi hartan, langileek zapatu ingelesa deritzona zeukaten. Pedagogia piska bat, gazteek ulerzte aldera: zapatu ingelesa joan zen mendearen erdialdeko konkista sozial handi bat izan zen. Hau da, langileek zapatuan egun erdia baino lan ez egitea lortu zutenekoa. Bost egun t'erdiko astea..

Esan nahi dut honekin ni jaio nintzanean, eta gero ere ume nintzen bitartean, gure aitak, langile guztien moduan, astean berrogeitamar ordu egiten zituela tailerlean (fabrikan, esaten duze Debagoienean. Eta Eibarren, berriz, tallarrian). Nire jaiotzagaitik egunen bat ere emango zioten antza, maternitateko itxaron gelan egon zelako (pentsatu ere ez erditze-gelara sartzerik!). Amak etxean lanean full time aritzen ziren sasoiaren hura.

Garai horretxek bizi izatea tokatuta ere, aita garaiz kanpoko gizona izan genuen, duda barik. Lanak lagatzen zion denbora urri guztia nebarekin eta biokin pasa zituen berak. Egutero oheratu gintuen berak, jaiero atera gintuen kalera, ni oinez, eta aldi berean neba lepoan eramanda. Eta hitz egin zigun, ipuinak kontatu zizkigun eta mundua esplikatu zigun, umeei gauzak azaldu behar zaizkien bezala, behin eta berriro kontatuta, azalpen asko emanda eta ikaragarritzko pazientziarekin gainera. Hori guztia egiten zuen gureak, aitak umeekin batera kalean bakarrik ikusten ez ziren garaian, hain justu.

Ostera, garaiak aldatu egiten dira, baita batzutan hobera ere. Ohitura ez zelako, gure aitarekin kalean ibili ez ziren gizon haiek, horren ordez lagunartea edo taberna-zuloa hobetsi zutenak, orain txora-txora dabilta iloben orgatxoei bultzaka. Bestalde, 2006an aitek bi asteko lan baimena eskuratu zuten umea jaiotzean; bi urte barru, baina, lau astekoa izango dute. Baimen berriko aitak gureak zapatu ingelesaren garaian egindakoaren parera iristen badira, konkista sozial berria ez da alperrikoa izango, ez horixe.

"Ohitura ez zelako umeekin ibili ez zirenak, orain pozik daude ilobekin"

"Batzutan hobera egiten dute garaiek"

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARETXABALETA

> Motor zarata gogaikarriak gauetan

Aretxabaleako bizilagun batek diosku gogaituta dagoela gauetan motorrek ateratzen duten zaratarekin. Eguraldi onarekin batera gero eta gehiago izaten direla dio-eta "batez ere ikasleek oporrak hartzen dituztenean". Motor txikiak izan arren, benetan zarata gogaikarria ateratzen dutela uste du aretxabaletar horrek; eta jakin gurako luke legeak zer dioten horren gainean, "isunen bat merezi badute, udaltzainek jar diezaieten".

BERGARA

> Bideberrin aparkaleku gutxiago

Kexu da bergarar bat Bideberrin aparkaleku asko kendu dituztelako lanak direla-eta. "Lanak egin beharko dira, baina beti aparkalekuen kontura?" Gainera, Bergaran oso zaila dela aparkatzea esan digu, "erdigunean, behintzat, benetan zaila; hortaz, zer egingo dugu?".

ARRASATE

> Zorionak, Motorrero Eguna antolatzeagatik

Arrasatear batek gogoan du orain dela urte batzuk motor zaleen kontzentrazioa egiten zutela Zigarrolako jaietan, baina azken urteotan ez da halakorik egin. Horregatik asko poztu da Motorrero Eguna egin dutelako aste bukaeran: "Batzuendako zarata izan bada ere, motor zaleok gustura hartu dugu, motorren inguruan sortzen den giro benetan berezia da-eta",

usteak uste

Maidar Arregi

Belar metarik ikusiko dugu?

Udan sartu berri gara eta eguraldi ederrak ez digu hutsik egin. Badirudi eguzkia lagun izango dugula udan. Beno, eguraldi adituek hori diote... Beste batzuek, aldiz, denetarik izango dugula... auskalo! Debagoieneko (eta Euskal Herriko) baserriar guztiak zerura begira daude aspalditxodanik. Izan ere, belar garaia iritsi da eta belarra ondo sikatzeko eta batzeko eguraldi eguzkitsua eta batez ere lehorra ezinbestekoa da.

Baina teknologia berriak ere aspaldi iritsi ziren gure baserrietara eta gure pasaiak belar fardoak jantzen dituzte udaran. Txikitan, ordea, gogoratzen dut traktorea hartu eta nola metatzen zuen belarra aitak ia bost metroko belar meta egin arte. Baliteke belar zail txikietan belar metaren bat ikusteko aukera izatea Debagoieneko zelairen batean; baliteke oroitza-pen politak berriro itzultzea...

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredaktorea Mirari Altube, Goitz Arana, Maidar Arregi
Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Maria Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 16 Bergara > 17 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> ARRASATE

Herriaren parte-hartzea oinarri eta helburu, jai batzordeak dena du gertu San Juanetarako > 15



> BERGARA

Kontzertu batekin aurkeztuko dute Santa Marinako organoa bihar, martitzena > 16



> OÑATI

Euskadi etorbideko eta inguruko kaleetako oztupoak kenduko dituzte datozen hilabeteetan > 18



KALE ANIMAZIOA Gazte ugari animatu zen dantza egitera San Martin plazan.

JOSETXO ARANTZABAL



ERROSKILA Pastel eta erroskilen postuak arrakasta izan zuen.

JOSETXO ARANTZABAL



EZPATA BORROKA Ezpata borroka ikusmina pitzu zuen.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA > ERDI AROKO EUSKAL AZOKA

Ikuskizun asko eta hainbat eratako ekitaldiak Erdi Aroko azokan

TEMATIKOA

Merkatal gunea beharrez, tematikoa izan da azoka

EUSKAL HISTORIA

Nabarralde landu ditu historiaren gaineko kontuak

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Lehenengoz antolatu du Bergarako Udalak Erdi Aroko azoka bertako kaleetan. Herritarrek bazuten ikusmina eta eguraldi aproposari lagun -ez euririk, ez bero gehiegirik- gustura ibili dira artisauek postuak ikusi, ikuskizunak jarraitu, historiaren gaineko kontuak entzun eta jan-edanean.

EUSKAL IZAERA ZAINTZEN

Bizkaia aldetik etorritako Txoria txori egitasmoaren eta Basque Power enpresaren bitartez antolatu du azoka Bergarako Udalak, aste bukaeran. Eta antzeko azokekin alderatuta berezitasun garrantzitsua izan du: Euskal Herriko ikuspegia.

Nabarralde elkartearekin lan-kidetzan, euskal historiaren gaineko kontuak landu dituzte bi egunotan: istorio kontalaria, mitologia kalejira, historia erakusketa... Eta euskal izaera zaintzen ahalegindu dira: heraldika ikur euskaldunak apaingarri moduan, kartel elebidunak eta saltzaile asko euskaldunak. "Halako azoka antolatu dugun bigarren aldia da eta badugu zer hobetu, euskarari dagokionean, esaterako; horregatik lanean jarraituko dugu", adierazi digu Txoria txori egitasmo arduradun Iñigo Gallartzagoiak.

IKUSKIZUNAK ETA JATEKOA

Azoka xumea izan da, baina herritarrek harrera ona egin diote: "Baliteke batzuek pentsatzea artisauek saltoki gutxitxo egon direla, baina guk ez genuen merkatal gune bihurtu gura azoka, tematikoa izatea baizik", argitu du Gallartzagoiak. Hala bada, 30 bat saltoki egon dira San Martin plazan, baita taberna bi ere; eta haima Munibe plazan. Herri-

tarrek oso gustura jardun dute bai zapatuan, bai domekan begira eta erosten. "Belarren postuak eman dit atenzioa; Andaluziatik etorritako saltzaileek zenbat belar dituzten...", esan digu Nicolas Romaratezabalak.

Beste batzuk, oster, jateko bila hurreratu dira eta taloak, txorizo bokadiloak, barbakoa erretako saltxitxak eta olagarroa topatu dituzte.

Eta tartean ikuskizunak ere izan dira: ezpata borroka, hegazti harraparien erakustaldia, bertsolariak...

Umeek ere izan dute ondo pasatzeko gunea. Jolasak, ipuin kontalariak, zirku tailerra, kalejirak eta beste hainbat kontu izan dituzte Ariznoa plazan. "Jolasean ibili gara eta landareak ere landatu ditugu; geuretako izan dira gero", esan digu Mikel Larrañagak.

UDALAREN BALORAZIOA

Enara Minguez Kultura zinegotziak azokaren balorazio positiboa egin digu oraindik bukatze- ar dagoela: "Gure asmoa izan da kultura ekitaldi gehiago antolatzea herrian eta ekitaldi ezberdinak eskaintzea eta uste dut lortu dugula. Adin guztietarako ikuskizunak izan dira eta herritarrek harrera ona egin diote. Aurrerago baloratuko dugu hurrengoan zelakoa egin".

ESANAK

"Azoka tematikoa izatea gura genuen eta ez merkatal gunea, horregatik saltoki gutxiago baina espazio gehiago dago"

Iñigo Gallartzagoiak > Txoria txori

"Gure asmoa izan da kultura ekitaldi gehiago antolatzea eta ekitaldi ezberdinak eskaintzea herritarrei"

Enara Minguez > Kultura zinegotzia

ARRASATE > UMEEN DANBORRADA

Umeen danbor hotsekin hasi dituzte aurtengo San Juan jaiak



Aurtengo umeen danborradan 220 ume inguruk hartu du parte. Txikienek gainera, karroza batean egin dute danborradako ibilbidea osoa.

JOSETXO ARANTZABAL

Aurtengo haurren danborradan 220 ume inguruk hartu du esku

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Eguraldia lagun, jendetza hurbildu zen umeen danborrada ikustera. Juan Luis Arkauz SUDCeko kideak balorazio positiboa egin zuen. "Dena primeran irten da, eguraldiak ere lagun du eta oso gustura gaude. Hasiara batean 250 ume espero genituen, baina azkenean 220 inguruk hartu dute parte danborradan". 19:00etan anbulatoriotik hasita, Nafarroa etorbideetik, herriko kaleetarako bidea hartu zuen. Garibaitik, Maalara, amaiera borobila emanez plazan. "Jendearen harrera beroa baloratzekoa da eta hemendik animatu nahi ditut hurrengo danborradetan parte hartzera". Umeek egindako lana nabarmendu nahi izan zuen Arkauzek. "Hilabete erdi eman dugu entseguekin eta oso gustura aritu dira umeak. Jendeak asko laguntzen du eta oso ondo antolatu gara".

Bestalde, nagusien danborradarako dena prest dagoela adierazi digu Arkauzek. Azken entsegua gaur, astelehena, San Viatorren egingo dute Arrasateko txarangarekin batera.



Upel jotzaileak, eskoziarrak, kantinerak... denetarik izan zen.

JOSETXO ARANTZABAL



Etxetik plastikozko danborrarekin aritu ziren 3-4 urtekoak.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > HAUR DANTZARI EGUNA

Musikaz eta alaitasunez bete ziren herriko kaleak



Guztira 300 ume dantzari eta bederatzidantza talde izan ziren.

JOSETXO ARANTZABAL



Arratsaldean dantza berezien txanda iritsi zen herriko plazara.

JOSETXO ARANTZABAL

Guztira, 300 dantzarik eta 100 txistulari eta gaitarik hartu dute parte Haur Dantzari egunean

M.A. > ARRASATE

Bederatzidantza taldek hartu du parte aurtengo Haur Dantzari egunean. Arrasateko kaleak alaitasunez eta musikaz jantzi ziren, atzo, domeka. Aurten, gainera, Bergarako dantza taldea ere izan da, Oñati, Antzuola, Legazpi, Soralue, Langraitz, Iruña eta Arrasatekoekin batera. Dantza taldeek euren saioak eskaini ondoren, denek bat eginda ikuskizun ederra eman zuten herriko plazan eguerdian.

Arratsaldean, aldiz, Debagoieneko taldeek eta ibarretik kanpoko taldeek dantza saio bereziak eskaini zizkieten herriko plazara gerturatutakoei.



Emakume koadrila bat lehiaketan parte hartu zuen taldeetako baten kazuelari begira.

JOSETXO ARANTZABAL



60 lagun inguru batu ziren eguerdian plazan, bazkaritarako.

J.A.

ELGETA > I. KOADRILEN EGUNA

Gixaua prestatuta eta dantzan eginda, berotu dituzte motorrak

Bikain joan da Koadrilen Egunaren lehen edizioa: jende dezentek esku hartu du eta giro ona sortu da

GOIATZ ARANA > ELGETA

Gixau lehiaketarekin eman zioten hasiera I. Koadrilen Eguna-ri, zapatuan. Sei taldek parte hartu zuten eta kazuelarik onena *Milizianoak* taldeak prestatu zuela ebatzi zuen epaimahaia. Itxurak erabaki zuen saria. Izan ere, sei kazuelatik bost presio-eltzean prestatu zituzten eta bakarra

beti-betiko lapikoan. Epaimahai-kideek nabaritu zuten huraxe zela goxoen. Patata goiz samar sartu zioten, ordea; apurtuta geratu zen erabat; eta, hala, kazuela horri bigarren saria eman zioten, azkenean. Herri bazkarian jan zuten gixaua; Udalak jarri zituen mahaiak eta aulkiak, eta herri-tarrek sarrerakoak.

ERDIZKA LAUETAN

Eta behin tripa beteta, dantzara: Lauetan Erdizka taldearekin biz-pairu orduko saioa egin zuten, plazan bertan. Askok egin zuten dantza eta beste asko animatu ziren horien saioa ikustera. Haurrek, bitartean, nahikoa jolas egin zuten euredako jarritako puzgarrian eta igerileku txikian.

Motorrak berotuta, Ferixa Nagusiko jaien zain daude orain. Bi aste barru izango da hori, uztaileko lehenengo asteburuan.



Neska-mutikoez gozatu ederra hartu zuten puzgarrian.

J.A.

ESKORIATZA > KIROL ELKARTEAREN JAIA

III. Kirolarien Eguna aitzakiarik gabea izan da; datorren urtean, laugarrena



Lehiaketarako prestatutako tortillak ez ziren alferrik galdu.

GOIENKARIA

GOIATZ ARANA > ESKORIATZA

Kirol elkarteak jaiz jantzi zuen herria, zapatuan. III. Kirolarien Egunaren barruan, hamaika ekitaldiz gozatu ahal izan zuten bertan batutakoek: askotariko lehiaketak, herriko pilota txapelketako finalak, herri bazkaria, txuleta jana... Eguraldiak lagunduta eta herritarren parte hartzeari esker, guztiak egin ahal izan ziren. Manolo Muñoz presidentek hirugarren edizio honetan aurreko bietan baino jende gutxiago izan dela aitortu digu, baina, hala ere, bikain joan dela gaineratu.

Zapatuko jaiak herriko iragane-kirolariak ere erakarri zituen, eta hasitako bidetari jarraitzea emateko eskatu zioten presidenteari. Muñozek argi dauka: arrakasta gehien izaten duten ekitaldiak errepikatuz eta, ahal bada, berriak gaineratuz, datorren urtean laugarrena egingo dute.



GOIENKARIA

ARRASATE > AFRIKAR FESTA

Danborra jo eta gerria astintzen

Elkar Hezitzen elkartearen laguntzarekin, Txatxilipurdi elkarteak perkusio eta dantza afrikar tailerrak egin ditu Arrasateko gaztetxokotan, ekainean zehar. Egubakoitzean, egitaraua borobiltzeko, jaialdi berezia egin zuten, Biteri plazan: Afrikar Festa. Adin tarte ezberdineta-ko neska-mutikoez esku hartu zuten: jatorri afrikarreko musikarien eskutik, orduak eman zituzten danborra jotzen eta gerria astintzen. Indarrak hartzeko, gure otorduetan ohikoak ez diren jaki bereziak dastatu zituzten. Afrikako kulturari buruz zerbait gehiago dakite orain.

HEZKUNTZA > OPORRAK

Ume eta gazteek agur esan diote 2008-2009 ikasturteari

Arrasate Herri Eskolakoak irailaren 8an itzuliko dira; 700 ikasle matrikulatu dira

Arizmendi Ikastolakoak irailaren 10ean itzuliko dira; 1.794 ikasle matrikulatu dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Malko gutxi ikusi ziren egubakoitzean herriko neska-mutikoen artean; alderantziz, irailean ez bezala, irribarreak eta poz-urduitasunez jantziak zebiltzan ikasleekin gora eta behera. Izan ere, Arrasateko neska-mutikoen agurteak aurtengo ikasturtea, 2008-2009a, irailera arte.

ESKOLAN, AZPIEGITURA BERRIAK

Arrasate Herri Eskolan irailaren 8ra arte dituzte oporrak ikasleek. Josune Etxabek, eskolako zuzendariak jakinarazitakoaren arabera, 700 neska-mutiko dituzte matrikulatuta datorren ikasturterako. Eta horrez gainera, pare bat berritasun ere aipatu gura izan ditu herri eskolako zuzendariak: Erguinen eta Musakolako eskola guneak handitu egingo dituztela. Besteak beste, Musakolan Haurreskola zerbitzua estreinatuko dute eta orokorrean, azpiegitura berriak izango dituztela.

IKASTOLAN, UDALEKUAK

Arizmendi Ikastolari dagokionez, berriz, haiek kontatu dute irailaren 10era arte izango direla oporretan. Eta datorren urterako 1.794 neska-mutiko matrikulatu direla Arizmendik Arrasaten dituen guneetan ikasteko.



Arrasate Herri Eskolako Bedoñabeko neska-mutikoak, ikasturtea agurtzen. U.M.

Hori baino lehen, baina, Arizmendiko udalekuetara joango dira 475 ikasle, uztailean.

Bestalde, ikastolakoek ere berritasunekin datozela iragarri dute: "Batxilergoko bi mailak ikas-

teko aukera izango da". Bestalde pozik daude Lanbide Heziketaren matrikulazioarekin, "gainera "eraikuntzan heziketa ziklo berria emango da, oso egokia arlo horretan kualifikazio ona lortzeko".

NESKA-MUTIKOEN ASMOAK



Libe Alonso
4 urte

Pirritx eta Porrotx ikustera joango naiz, zezen-plazara, etxean jolastuko dut, kalean... Askok gustatzen zaizkit oporrak, eskolara etorri baino gehiago. Oporretan atseden hartuko dut.



Bingen Arantzadi
5 urte

Oporrak asko gustatzen zaizkit, ondo pasatzen dudalako; jolastu egiten dut etxean eta baita lagunekin ere, kalean. Eskolara ez naiz etorriko. Eta ikasi ere ez dut egingo, nahikoa ikasi dut-eta.



Manex Vaquero
4 urte

Port Aventura joango naiz, amatxorekin eta aitatxorekin. Port Aventura ikusiko dut, sekula egon barik nago. Baina, ingelesa ere ikasi behar dut, nire aita ingelesa ikasten dabil-eta.



Garazi Moreno
5 urte

Donostiara joango naiz nire lehengusu batzuekin, kanpinera, 10 egunetarako, eta gero joango naiz amama eta aitariarekin igerilekura, eta Miarritzera ere bai. Baina ikasi ere egingo dut.

KIROLA

Egin gura den kirola proposa daiteke

Galdeketa egiten dabilta Musakolako kiroldegian; kutxa ipini dute harreran

U.M. > ARRASATE

Musakolako kiroldegiko sarrerako harrera-mahaian kutxa ipini dute, herritarren iritziak batzeko. Gura dute jakin datorren ikasturtean, hau da, irailetik aurrera, zein kirol jardura gurako luketen egin herritarrek. "Eurek proposamenak egin ditzaten, beti egiten ditugu gura-eta", esan du Eli Roncero kirol teknikariak. Zehaztu du uztaileara arte izango dela iritzia emateko aukera, nahiz eta momentuz jasotako erantzuna "txikia" dela, "baina espero dugu jende gehiago animatuko dela", gaineratu du.

DENETARIKO PROPOSAMENAK

Orain arte jasotako erantzunen artean denetariakoak daude: "Paddle, aqua gym... denetarik proposatu dute. Horiek baditugu une honetan. Pentsatzen dut jendeak kenduko ote ditugun beldur dela-edo. Beste proposamen batzuk, berriz, aztertzen gabilta eta taldea ateratzen bada eta instalazio aldetik aukera baldin badugu...saiatuko gara horiek gauzatzen. Adibidez water polo, gimnasia artistikoa, funky, break... halakoak eskatu dituzte".

Kiroldegian galdeketa egiten duten lehen aldia da. "Datorren urteko programa prestatzen gabilta eta horregatik erabaki dugu orain jendeari galdeketa zer gura duen".

AZPIEGITURAK > GUEÑES-ITSASO GOI-TENTSIOKO LINEA ELEKTRIKOA

Goi-tentsioko linearen kontrako Udalaren arrazoiak

Debagoiena "interes orokorreko azpiegitura handi askoren pasabide dela" alegatu du, besteak beste

U.M. > ARRASATE

Gure ibarretik pasarazi gura duten Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea elektrikoaren kontra sei alegazio aurkeztea erabaki du Arrasateko Udalak. Eskumena dauka Arrasateko Udalak kontu horretan, izan ere, linea elektriko hori pasatzeko bi aukera dabil aztertzen Red Electrica de España enpresa, eta bata izango litzaiteke Arrasatek pasatzea.

Bada, proiektu horren gaineko hasierako dokumentazioa esku artean, Arrasateko Udalak aurkeztutako alegazioetan, lehenengo eta behin, eskatu du orain bidalitakoa baino dokumentazio osoagoa jasotzea: "Arrasateko udalerriarengan eragina duen eremuari buruzko plano osagarriak, eskala egokian"; eta baita ere, "kontsultari erantzuteko epea" luzatzea.

BAILARA "ESTUA"

Arrasateko erakunde nagusiak emandako arrazoiaren artean, azpimarratu du, "Debagoieneko eskualde hau interes orokorreko azpiegitura handi askoren pasabidea" dela (Paris-Madril autobidea, AHT, Gaseoduktoa...) eta azpiegitura horiek jasotzeko "lur asko erabiltzen" dela.

Azken horrekin lotuta, dio, baita ere, "hiritar edo nekazari-tza erabileretarako oso lur erabilgarri gutxi geratzen" dela eta ondorioz halako azpiegitura baten inguruarekiko eragina handiagoa dela.

"TEKNIKOKI OSO TXARRA"

Bestalde, gure ibarra "beste alternatibetan ukitutakoak baino askoz estuagoa" dela ere alegatu du Udalak, "beraz, halako azpiegitura berri bat jasotzeko okerragoa" dela pentsatzen du.

Eta gaineratu du proiektu hori hasiera batean ez zegoela aurreikusita "teknikoki oso txarra dela era objektiboan ezin delako ukatu".

GIZARTE EREDUA ALDATU BEHAR

Alegazio txostenean, Arrasateko Udalak aipamena egiten dio, baita ere, gaur egungo egoera eko-

nomikoari, salatzeko "etorkizuneko gizarte eredu berraztertu behar dela talde politiko eta gizarte eragile guztien ahotan entzuten ari garenean era honetan azpiegitura berriak eraikitzea zalantzan jartzea bidezkoa da".

Bukatzeke, zera eskatzen du: "Erabaki bat hartu baino lehen azterketa sakon bat egin dadila proposatutako proiektuaren bideragarritasun eta egokitasunari buruzkoa (...) eta proiektuarekin aurrera egitea jarratzea erabakitzen bada, aukeratzen den alternatibak eskualde hau saihestu dezala".



San Juanetako jai batzordeko kideak, joan den eguaztenean gaztetxean egindako egitarauaren aurkezpenean. JAI BATZORDEA

SAN JUANAK > JAI BATZORDEA

Herriaren parte-hartzea oinarri eta helburu, jai batzordeak dena du gertu

Joan den eguaztenean aurkeztu zuen jai batzordeak San Juanetarako prestatu duen egitaraua; bihurtu zuzapatura arte aspertzea debekatuta dago

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

24 ordu eskas geratzen dira jai giroak Arrasate har dezan. Izan ere, San Juanetako jai batzordeak antolatuta, bihar 12:00etan txupinazoa egingo dute koadriek Ferrerias kaleko plazatxoan.

ARGAZKI LEHIAKETA

Jaietako bilduma onena, lekuko onenen eskutik

Iaz izandako arrakasta ikusita, San Juanetako jai batzordeak argazki lehiaketa antolatu du bigarren bez. Aurten ere bi atal izango ditu lehiaketak: kamerarekin eta mugikorrarekin ateratakoak. Jai batzordeak lehiaketarekin arrasatearrek jaien inguruan duten ikuspuntua jakin gura du.

Argazkien kalitatea, originaltasuna eta bizitasuna epaituko ditu jai batzordeak eta argazkilaritzan adituak diren arrasatearrek. Erretratuak hilaren 23tik 29ra bitartean bidali beharko dira, sanjuanak09@gmail.com helbidera. Irabazleendako sariak egongo dira. Azkenik, baldintzak www.sanjuanak09.blogspot.com helbidean kontsulta daitezke.

HERRIAK, HERRIARENDAKO

Krisixa? Berpiztu daigun herri-xa! da, hamaika aldaketa jasan ostean, jai batzordeak aukeratu duen 2009ko San Juanetako leloa. Joan den eguaztenean egin zuten egitarauaren aurkezpena. Programako ekitaldietan ikus daitekeenez, herriaren parte hartzea bultzatu gura dute. Eta halaxe adierazi dute: "Urtero moduan, aurten ere herriak herriarendako egindako jaiak izango dira; azken finean herritarrei San Juanetan parte hartzeko dei bat dira".

BAZKARIRAKO TXARTELIK EZ

Egitarauari erreparatu, San Juan bezperan –hots, bihar– herri bazkaria eta makalaren igoera nabarmendu ditu jai batzordeak. Herri bazkarirako txartelak salgai jarri zituzten egun berean saldu ziren –150 guztira– eta jai batzordekoak aurreikuspenetan huts egin dutela onartu dute; "datorren urtean beste nonbaiten egin beharko dugu", adierazi dute. Hala ere, txartelik ez dutenei, barkamena eskatu eta *Txo-poteoan*–makalarekin kaleetan zehar egingo den poteoa– parte hartzea deitu diete. Eta makalaren igoeran, iaz gertatu zen ezustekoaren harira, honakoa, jakinarazi dutena: "Aurten ezetz jausi!".

DATUA

107.0

FREKUENTZIA MODULATUAN

Azken hilabeteetan jo eta ke lanean ibili ondoren Itxungi irrati librea aurkeztuko dute ekainaren 26an gaztetxean (18:30-19:00). Dena ondo badoa 107.0 frekuentzia modulatuan entzun ahalko da.

BERRIKUNTZAK EZ DIRA FALTAKO

Orain arte egin ez diren ekitaldiak ere izango dira. Aipagarria da, lehen aldia ez bada ere, II. Bikoizketa Erotikoaren txapelketa. Iaz arrakasta izan zuen eta aurten ere errepikatu egingo dute. Gaztetxean izango da, bihar, 18:00etan.

Hortaz, berrikuntzak badira. Hona aipagarrienak: Krisi probak egunean txosnagunean, Itxungi irrati librearen aurkezpena egubakoitzean gaztetxean, eta Kamejame txapelketa zapatuan txosnagunean. Izan ere, jai batzordeak egun bat gehitu die aurten ere San Juanei, zapatua dela aprobetxatuta. Hala, ekainaren 27an ere festa izango da nagusi, txosnagunean bereziki. Hasi da orduen atzerako kontaketa...

ZERBITZUAK > UDAL EUSKALTEGIA

Ekainaren 29an amaituko da izena emateko epea

Izema emateko azken eguna hilaren 19a zen, baina ekainaren 29ra arte luzatu dute epea; ikastaroak 136 euro balio du guztira

amaitzekoa zen, baina euskaltegiko arduradunek San Juan jaietako oporren ostean interesatuei izema emateko aukera emango diete. Hala, eskolak hasten diren egun berean, hots, ekainaren 29an, matrikulatze-ko aukera izango da.

UZTAILEAN ETA IRAILEAN

Uztaileko eskolak ekainaren 29an hasi eta uztailearen 24an amaituko dira. Irailean, berriz, hilaren 1etik 25era emango da ikastaro trinkoa.

Ordu kopuruari dagokionez, uztailean lau ordu egingo dituzte egunero, goizez. Irailean, berriz, bi ordu egingo dituzte arratsaldean. Orduetegiak ikasleek zehaztuko dituzte. Ikastaroak 136 euro balio du.

J.B. > ARRASATE

Udaro moduan, Arrasateko udal euskaltegiak Euskal Gaitasun Agiria eskuratzeko azterketa gauditu edo Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen 3.mailako titulua lortzeko ikastaro trinkoa eskainiko du.

Ikastaroaren matrikulazio epea joan den egubakoitzean

OPORRAK > BIBLIOPORRAK GIDA

Denondako liburu, disko eta film onenak, gida batean

2009ko Biblioporrak gida eskuragarri dago Arrasateko eta ibarreko udal liburutegietan

J.B. > ARRASATE

Askorendako ohitura da udako oporrek eskaintzen duten lasaitasunean liburu bat irakurtzea. Debagoieneko udal liburutegiek ohitura hori indartzen dihardute aspalditik, Biblioporrak deritzen gida herritarren eskura jarrita. Literatura, musika eta zinema gomendio onenak jasotzen dituzte, eta gomendio horiek adin eta gustu guztiak hartzen dituzte kontutan.

Hala, liburu, disko eta film interesgarrienak jasotzen dituen gida eskuragarri dago Arrasateko udal bibliotekan.

ADIN ETA GUSTU GUZTIENDAKO

Esan moduan, haur, gazte eta helduendako gomendioak biltzen dira liburuxkan, gustu guztiak asetzeko modukoak. Literaturak hartzen du gidako zatirik handiena. Liburuak bost multzotan banatzen dira, adina irizpide moduan hartuta: jaioberriak, 6 urte, 9 urte, gazteak eta helduak. Guztira 80 liburu gomendatzen dira.

Azken urteetan hartutako ohiturari jarraituz, aurten ere disko eta filmak gomendatzen dituzte, estilo askotariko zortzi disko eta ezagunak zein ezezagunak diren zortzi film.



Hondartzan irakurtzea plazerra da askorendako.

MUSIKA > ORGANO KONTZERTUA

Kontzertu batekin aurkeztuko dute Santa Marinako organoa bihar, martitzena

Oberlinger etxeko organo berria sakristau etxean jarri dute eta Musika Eskolak emango dituen organo eskoletarako erabiliko dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Santa Marina parrokiako sakristau etxean jarri duten organoa aurkezteko kontzertua egongo da ekainaren 23an, martitzena. San Pedro parrokiak erositako organoa da, Oberlinger etxekoa, eta erosi dute organo eskolak emateko.

Hain justu ere, Musika Eskolak organo eskolak emango ditu lehenengoz –matrikula epea zabalik dago ekainaren 26ra arte–, eta horretarako erabiliko dute Santa Marinako sakristau etxean jarri duten organo berria.

EMANALDI

Kontzertua izango da martitzenan, hilak 23, 19:30ean, eta emanaldia eta gero interesa duten guztiek probatu ahal izango dute organoa.

Emanaldia egingo dute Maria Jesus Ugalde sopranoak eta Aitor Olea organo jotzaileak. Sei obra-ko egitaraua egingo dute –ondo-ko koadroan–, eta eskainiko

Kontzertuko egitaraua

Chaconne Fa M Johann

Caspar Ferdinand Fischer -
Organorako

Dixit Dominus HWV 32 Tecum

principium Aria Georg

Friedrich Haendel -

Soprano eta organorako

Magnificat BWV 243 Quia

respexit humilitatem eta An

Wasserflüssen Babylon BWV

653b Johann Sebastian Bach -

Lehena, soprano eta organo-
rako; bigarrena, organorako

Rinaldo HWV 7 Lascia ch'io

pianga Aria Georg Friedrich

Haendel - Organorako

Rondo con imitazione de'

Campanelli Op. 17 Giovanni

Morandi - Organorako

Samson HWV 57 Let the bright

Seraphim Georg Friedrich

Haendel - Soprano eta

organorako



Irudian Alemaniatic ekarrirako Oberlinger etxeko organoa.

GOIENKARIA

dituzte Fischer, Haendel, Bach eta Morandiren lanak.

ZALETASUNA PIZTU NAHI DUTE

Egitasmoaren helburua da organoa Bergarako eta inguruko herrietako herritarrei gertura-

tzea, organo joleen artean belu-
naldi etenik egon ez dadin.

Organo berria espreski esko-
lak emateko prestatuta dago. 16
erregistro ditu eta guztiz meka-
nikoa da. 1978an eraiki zuten eta
2,15 metroko altuera eta zabale-

ra eta 2,25 metroko sakonera
dauzka. Elizak inbertsio esangu-
ratsua egin du organoa erosten,
izugarri garestiak dira-eta. Biga-
rren eskukoa izan arren, guzti-
ra 45.000 euro inguru gastatu ditu
organo berrian.

Asier Arrieta > Ikaslea

"Ikasle aipagarriena izendatzea satisfazio pertsonala da"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan Proiektu Mekanikoen Garapena ikasi du Asier Arrieta. Aurten egin du bigarren eta azken ikasturtea eta izendatu dute ikasturteko ikasle aipagarriena, eskolak antolatzen duen sariketan. Hain justu, Ikasle Aipagarria 2009 saria eman diote bergararrari.

IMHko 2009ko ikasle aipagarriena zara. Pozik jasotako sariarekin?

Ba egia esan, satisfazio pertsonala ematen duen zerbait da, beraz, gezurra esango nuke poztasunik ematen ez duela esango banu.

Eskolako zuzendaritzak eta irakasleek osatutako epaimahaiak ematen dio saria espediente onena lortu duen ikasleari. Horren onak dira zure notak?

Esan zidatenez, saria emate-
rako orduan hainbat ikasle egon
gara bata besterengandik oso ger-
tu, beraz, nota dezenteak dira

baina beste norbaitek ateratzeko modukoak.

Ikasle fina izan zara beti, ala uste duzu adinak eta horrekin batera helburuak garbi izateak laguntzen duela?

Egia esan normalean ez dut arazorik eduki ikasketekin, baina ikasle askoren filosofia eduki izan dut: *La ley del mínimo esfuerzo*. Adinak gauzak beste era bate-
ra ikustera laguntzen du, katxondo gutxiago eta daukazun denbora ondo administratzera iristen da pertsona.

Zein helbururekin sartu zinen eskolan?

Zortzi urte lanean eman eta gero, denborarekin galdutako profil teknikoa berreskuratzeko

"Bizitza aurrera doala, pertsonak eboluzionatu egin behar du eta formazioa, erreminta da"

gogoia neukan, eta bestalde, gauza berriak ikasteko kuriositatea sartu zitzaidan.

Gaur egun gure kulturak leku baten lanean hasi eta betirako bertan gelditzera bultzatzen gaitu eta horrek askotan pertsonaren *apalanka* dakar. Nere ustez bizitza aurrera doala, pertsonak *eboluzionatu* egin behar du eta formazioa, horretarako erreminta bat da. Formazio esaten dudanean, arlo guztietakoa esan nahi dut; bai profesionala eta bai pertsonala ere.

Proiektu Mekanikoen Garapena ikasi duzu. Zergatik egin dituzu ikasketak horiek?

Zerbait praktikoa ikasteko gogoia neukan. Aurretik lan egin-
dako enpresan ere ikusita neukan zein lan mota izan zitekeen eta interesgarria iruditzen zitzaidan. Norberak sortutako zerbait funtzionamenduan ikustek sekulako satisfazioa ematen du.

Ikasketak bukatuta, nola ikusten duzu etorkizuna? Ez da



Asier Arrieta.

GOIENKARIA

unerik errazena lana aurkitzeko...

Oin momentuan etorkizuna beltz xamar ikusten dut, praktikak amaitu berri dauzkagu eta gehientsuenok lan bila gabiltza, hor nabil curriculumak bidali eta bidali.

Bien bitartean beste ezer egiteko asmorik badaukazu?

Oraingoz lanean hasteko asmoa daukat, baina lanik ez

dagoen bitartean ikastaroren bat egingo dut, eta gerora begira ere zerbait ikasiko dut, hau bukararik gabeko prozesu bat da.

Edozelan ere, uste duzu halako sariak curriculumerako baliagarri direla?

Ea zerbaiterako balio duen eta egun batzuen barruan telefono deiren bat jasotzen dudana eskaintza interesgarriren batekin.

OSPAKIZUNA > SAN JUAN SUA

San Juan sua piztuko dute bihar, plazan

Herri Mugimenduak antolatu du eta herritarrak animatu nahi dituzte jaiari parte hartuzera

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Herri Mugimenduak aurten ere San Juan sua piztuko du bihar, San Juan bezpera, San Martin plazan, 22:30ean.

Herri Mugimenduko kideek esan dutenez, "aurpegiak, sinboloak, formak... aldatzen diren arren, garai bateko euskaldunen eta gaur egungoen kolektibo izaera irudikatu nahi dugu bihar, San Juan bezpera, udari ongi eto-

ria emateko antolatutako suarekin".

LEHENGO OHITURAK

Herri Mugimendukoek gehitu dutenez, "euskaldunok herri zaharra gosatzen dugu eta hasieratik lotura handia izan dugu Ama Lurrarekin; gure jai eta errituak haren inguruan antolatzen genituen. Eurria eskatzeko bagenituen gure moduak; Arao-

tzera joaten ziren emakumeak ama izateko arazoak zituztenez arbasoen jainkoei eskean egiteko; Kristo jaio gabe zegoela, bage-neukan Orantzaroa familia elkartzeko aitzaki... eta udari ongi etorrria ematen genion su bat eginez".

LEHENGO LEPOTIK BURUA

Herri Mugimendukoek lehengo garai haiek gaur egungoekin ere alderatu dituzte: "Gaur egun ez gara garai haietan bezain arkaikoak. Modernoagoak, aurrerakoiagoak... laikoak ei gara. Dena dela, Ama Lurra maitatzen jarraitzen dugu, emakumeak ama izan edo ez izan erabakitzeko eskubidean sinesten dugu, Euskal Herriko familia guztiak elkarrekin ikusi nahi ditugu, gure etxeak defendatu beharra ikusten dugu, gure historia propioa ikasi nahi dugu inork ezer ezabatu gabe eta gure arbasoen hizkuntzan, euskaran".

Herri Mugimenduak Xaxau birusa sortu zuen Pazkoetarako. Bada, birus horrek lanean diharduela azpimarratu dute eta "Pazkoetan astindu zituen sentsibilitate guztiak batu" nahi dituela berriz, San Juan sua bezalako jai herrikoian.



San Martin plazan egingo dute sua.

GOIENKARIA

JENDARTEA > ERAKUSKETA

Erakusketa jarriko dute Gay, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna

'Gure borrokaren koloreak' du izena eta gaur, astelehena, zabalduko dute, kultura etxean

M.B. > BERGARA

Gaur hasi eta uztailaren 3ra arte Gure borrokaren koloreak izeneko erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean.

Udalak antolatu du erakusketa, EHGAM taldearen laguntzarekin eta helburua da gay, lesbiana eta transexualen gaineko sentsibilizazioa bultzatzea.

Kontuan izan behar da, bestalde, ekainaren 28a dela Gay, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna eta horren bueltan antolatu du Udalak esandako argazki erakusketa.

Argazki erakusketa orduetgia izango da 18:00etatik 21:00etara.

FILMA ETA MANIFESTAZIOAK

Erakusketaz gain, zineklubean Lucia Puenzo zuzendariaren XXY filma emango dute. Ekainaren 25ean izango da hori, 20:00etan. Sarrerak bi euro balioko du.

Bestalde, ekainaren 28an Harrotasuna mugarik gabe lelopean Euskal Herriko hiriburuetan egingo den manifestazioetara joateko dei ere egin dute Udaletik. Bilbon, Donostian, Gasteizen, Miarrizen eta Iruñean deitu dituzte manifestaziook.



IDOIA ALBIZU

Imaz lehengusu-lehengusinek bazkaria egin zuten Elosun

Imaz lehengusu-lehengusinek batu egin ziren bikote eta seme-alabekin-aurreko aste bukaeran, domekan, bazkaltzeko. Elosun egin zuten bazkaria, Ixaun jatetxean. Esan digutenez Elosura joan ziren Otaba jaiak ospatzen zirelako eta han egongo zen giroa aprobetxatzeko asmoz. Bergarako familiaz gain, Nafarroatik ere lehengusu-lehengusina ugari etorri zirela azaldu dute. Ondo bazkaltzeaz gain, jai giroan murgildu eta dantza ere egin zutela aitortu dute.

> HEZKUNTZA

Bihar bukatuko du San Martinek Euskal Astea Musika Eguna

San Martin Agirre herri eskola Euskal Astea murgilduta dago. Aurreko eguaztenez hasi eta bihar, martitzena, bukatuko dute. Askotariko ekitaldiak egin dituzte eta modu horretan ikasturteari amaiera ematea pentsatu dute.

Besteak beste egin dituzte euskal dantzak eta pilota txapelketa. Gaur, astelehena, jolas tradizionalak egingo dituzte eta bihar, martitzena, Musika Eguna izango da. Hortaz, kantuan eta dantzan egiten emango diote, amaiera ikasturteari.

> HEKUNTZA

San Juan bezperako jaialdiarekin agurtuko du ikasturtea Aranzadik

Martitzenean, San Juan bezpera, ikasturteari agur esateko jaialdia egingo dute Aranzadikoek. 18:30ean hasiko da, Udal pilotalekuan.

Maila guztietako ikasleek hartuko dute parte askotariko ikuskizunekin: *Euskaraz lehenik, Iluntzean, Orpo punta, Aupa kirolari!, Sorgin dantza* eta *Broken Strings* bezalako abesti eta ipuin musikatuak ikusi ahal izango dira.

20:30ean afora egingo dute eta 22:00etan sua, biak hala biak, eskolako jolaslekuan.



GOIENKARIA

Galtzagorri saria jaso zuten Donostian

Uxue Agirrek eta Elene Etxanizek egubakoitzean jaso zuten Donostia-ko Koldo Mitxelena Galtzagorri elkarteak antolatutako Idazle Gazte lehiaketako saria. Narrazio sailean jaso dute; Agirrek *Erretratu baten istorioa* lanarekin jaso du lehen saria; Etxanizek jaso du hirugarrena, *Taupadak* lanarekin.



Gaur egun, Euskadi etorbideko autobus geltokia eta espaloia egokitzen dihardute Egaralur enpresako langileek.

MIREIA BIKUÑA

Askotariko lanak egin beharko dituzte zortzi hilabeteko epean; besteak beste, espaloiak zabaldu, zoladura berritu eta autobus geltokiak egokitu

IRISGARRITASUNA > BIGARREN FASEKO LANAK

Euskadi etorbideko eta inguruko kaleetako oztopoak kenduko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Zapateroren Gobernuak emandako Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Fondoarekin finantzatuta, Euskadi etorbideko eta inguruko kaleetako oztopoak kentzen dihardute. Lan horiek irisgarritasun planaren bigarren fasekoak dira. A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, zortzi hilabeteko epea

izango dute Egaralur enpresako langileek lanak egiteko. Aurrekontua 354.000 euro da.

BIGARREN FASEKO LANAK

Arkitektura oztopoak kentzeko lanak maiatzean hasi zituzten, eta egun Apaolaza kalean eta Euskadi etorbideko autobus geltokian dihardute lanean. Askotariko lanak egingo dituzte; besteak bes-


te, espaloiak zabaldu, zoladura berritu, espaloietara igotzeko arrapala egokitu, plataforma eraiko zebra-bideak altxatu, eta autobus geltokiak egokitu dituzte. Gainera, Euskadi etorbidean, Apaolaza eta Patruie kaleetan gaizki kokatuta dauden herri altzariak lekuz aldatuko dituzte; hain justu ere, zakarrontziak, bide-seinaleak eta farolak.

BIGARREN FASEA BUKATUTA

Egun egiten diharduten lanekin bukatuko dute irisgarritasun planeko bigarren fasea. Lehen-lehenik Olapoto eta Etxaluze arteko oztopoak kendu zituzten. Ondoren, Portu, Bakardadeko Ama eta Moiuia kaleak egokitu zituzten. Lanak bukatuta Olapototik plaza-raino oztopo barik ibiltzeko aukera izango dute herritarrek.

Eslovakiako ikasleak bisitan egon dira ikastolan

Eslovakiako Kosice hiriko 34 ikasle eta hiru irakasle egon ziren aurreko astean Txantxiku ikastolako ikasleekin. Bi eskolek elkartrukea egin dute Comenius programaren barruan. Helburuak dira herrialde ezberdinetako ikasle-erarte esperientzia trukatea, kultura ezberdinetako kideen arteko hartu-emanak sendotzea eta ingelesaren erabilera sustatzea.



TXANTXIKU IKASTOLA

> KIROLDEGIA

Udako ordutegia dute Zubikoa kiroldegian abuztuaren 31ra arte

Atzo jarri zuten martxan udako ordutegia Zubikoa kiroldegian. Hain zuzen ere, abuztuaren 31ra arte indarrean egongo da. Udako ordutegia bi zatitan banatuko dute: ekaineko eta uztaileko zapatuetan, domeketan eta jaieguneetan zabalduko dute 10:00etatik 20:00ak arte eta astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era. Abuztuaren herrian jende gutxiago gertatzen denez, zerbitzua murriztu egingo dute. Hala, astelehenetan itxi egingo dute kiroldegia. Aldiz, martitzenetik domekara eten barik zabalduko dute, 10:00etatik 20:00etara. Eguraldi ona egiten duenean eguzkia hartzeko zelaia erabilgarri egongo da.

> TXAPELKETAK

Dardo eta xake txapelketak egingo dituzte gaztelekuan

Herriko ikasleak oporretan daudela aprobetxatuz gaztelekuko arduradunek bi txapelketa egingo dituzte asteen. Alde batetik, xake txapelketa egingo dute egubakoitzean; eta beste alde batetik, dardo txapelketa zapatuan.

Dardo txapelketan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute topalekuan eguaztena baino lehen. Txapelketaren gaineko informazio gehiago gura dutenek gaztelekuan galde dezakete edo 943 71 60 94 telefono zenbakira deitu.

Bestalde, kuboko I. xake txapelketa zapatuan 17:00etan egingo dute. 8-11 urte arteko gazteendako txapelketa da eta parte hartu gura dutenek gaztelekuan eman beharko dute izena.

oharrak

IZENEMATEA

> Aurre-matrikula zabalik Helduen Eskolan

Helduen Heziketa Eskolan zabalik dute aurre-matrikula hilaren 23ra arte. Ikasurte berrirako behin betiko izenematea iraileko lehen hamabostaldian egin beharko dute. Interesatuak eskolatik pasa daitezke edo 943 76 44 52 telefonora dei dezakete.

DEIALDIA

> 39ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 28an

70 urte betetzen dituzten emakumeak Etxeberria jate-txean elkartuko dira, 14:30ean. Izena emateko 943 78 03 50 (M. Angeles Arriaran) telefonora dei daiteke.

JAIK > SAN JUAN BEZPERA

Suaren garrek eskoriatzarrak harrapatuko dituzte bihar

San Juan bezpera egingo dute herrian bihar; arratsaldean txorimaloaren bila, su japoniarrak eta dastatzea egongo dira; eta gauean, sua eta tantaia jasotzea

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

San Juan bezpera da bihar, martitzena, eta urtero moduan, urteko gau luzeenaren harira, hainbat ekimen antolatu dira herrian. Arratsaldean, 18:00etan, plazan elkartuko dira txorimaloaren bila joateko eta datorren urteari begira, lore-sendorra prestatzeko. Horren ostean, 19:30ean, umeek su japoniarrak izango dituzte zain plazan. Ordu berean, gazta eta edariak banatuko dituzte toki berean gura dutenen artean.



Sugainetik salto egiteko aukera egongo da aurten ere.

GOIENKARIA

SUA ETA TANTAIA

Ilundu ostean, San Juan bezperetako ekimen esanguratsuena iritsiko da. 22:30ean, San Juan sua piztuko dute plazan. Aurten, 1992.

urtean jaiotakoak arduratuko dira sua isiotzeaz. Jarraian, txistu doinuaren laguntzarekin, erromeria eta urtero moduan, su gainetik salto egiteko aukera izan-

go dute eskoriatzarrek. Sua oraindik isiotuta dagoela, 1992. urtean jaiotakoek herriko gazteek duten indar guztia atera behar-ko dute, tantaia jasotzeko.

ESKORIATZA

Gimnasia erakustaldia dago hilaren 27an plazan

Eskoriatzako gimnasia elkarteak San Pedrotako jaien harira antolatu du

M.B. > ESKORIATZA

San Pedrotako egitaraua labetik ateratzeko gertu dago. Hori iritsi bitartean, asteburuan egingo denaren berri jaso dugu: gimnasia erritmikoko erakustaldia. Zapatuan, hilak 27, izango da plazan, 13:30ean. Eskoriatzako gimnasia elkarteko guztiek hartuko dute parte.

Bestalde, uztailean, gimnasia erritmikoaren gaineko ikastaro trinkoan izena emateko epea zabalik dago. Eskolak uztailearen 6tik 29ra egingo dituzte; astelehenetan eta eguaztenetan, 17:15etik 18:15era. Interesa dutenek pilotalekuko gimnasioan edo 629 13 77 26 telefono zenbakian eman behar dute izena.

DANTZA > JAIKI ELKARTEA

Hamargarren asteburua ospatuko du Jaikik Galartzan 26an eta 27an

Udako solstizioari ongietorria egiteko eta dantza afroamerikarren ikasturtea bukatzeko erakustaldia egingo dute gaur plazan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Jaiki elkarteak hamargarren aste bukaera antolatu du. Hilaren 26an eta 27an egingo dute Galartza auzoko aterpetxean, baina izena aurrez eman behar dute interesatuek, ekainaren 23rako.

EDONORI ZABALIK

Topaketa antza duen jaialdi dotorea antolatu du Jaikik hamargarren aste bukaera ospatzeko. Hori horrela, ekitaldiak, ikastaro motzak eta tailerrak egingo dituzte. Hona: chi kung ariketak; clown tailerra; emozioen egiturak; sendabelarren ibilaldia eta jolas librea. Jaikiko kideek zera diote: "Jolasteko gonbidapena da, sakon-sakonean, guztiok daramagulako jolasteko prest dagoen haur txikia, sarri, gizar-tearekiko *egin beharrek* errepremitua. Haur bizia da, noizean behin beste batzuekin libreki jolasteaz amesten duena".

Horregatik, ateak zabalik dituzte eta edonork har dezake parte jaialdian. Ekainaren 23rako eman behar dute izena interesatuek, mezu baten bitartez: jaikielkartea@hotmail.com. Edo telefonoz deituta: 653 70 50 68 (Eli). Bertara eroan behar-ko dutena ere zehaztu dute: arropa eroso, alfonbra (esterilla), manta, lo egiteko zakua, 30 euro eta musika tresnak edo gainerako kideekin banatu gura den edozer gauza.

Jaiki elkarteak 2003an sortu zuten hainbat aretxabalarrek -Gozatuz Ekimena zuen izena hasieran- eta ordutik hona makina bat ikastaro antolatu dute: Egiptoko dantzak, poesia eta contact saioak, dantza librea, margogintza sortzaile tailerra... Hobeto ezagutu gura duenak elkarte eta zein ekintza egiten dituzte jakin hona webgunearren helbidea: www.dalealplay.tk.



Jaiki elkarteko kideek Durana kalean egindako erakustaldi bat.

MIRARI ALTUBE

ERAKUSTALDIA PLAZAN

Jaialdia baino lehen, gaur bertan, dantza erakustaldia egingo dute Jaiki elkarteko kideek Herriko Plazan (19:30). Dantza afroame-

rikarren ikasturte bukaera ospatzeko izango da erakustaldia -kalipso, bonba, merenge rueda...- eta era berean, udako solstizioari ongietorria emateko.

ARETXABALETA

Erditze aurreko gimnasia gertu dago

Erditze osteko eskolak ere ematen dira Durana kaleko udal lokalean

M.B. > ARETXABALETA

Orain arte inguruetako herrietara joan behar ziren haurdun zeuden emakumeak gimnasia eskolak hartzera. Orain, baina, Udalak Durana kaleko 30. zenbakian daukan lokalean erditze aurreko eta osteko gimnasia ikastaroak ematen hasi dira dagoeneko. Aretxabalekoko osasun zentroko emagin Blanca Barriok ematen ditu ikastarook.

Gaur egun, 23 emakume dabilta ikastarootan. Horietatik, 12 erditze aurrekoetan daude. Eskola horiek 24-25 asteko haurdunaldian dauden emakumeek jasotzen dituzte astean behin; bi ordukoak dira, eta martitzeneko egiten dituzte. Erditze osteko eskolak, berriz, martitzenetan eta egubakoitzetan ematen dira, ordubetez.



Egokik antolatuta, atletismo probak egin zituzten umeak zapatuan.

L.Z.

ELGETA > SAN JUAN BEZPERA

Suaren aurretik jokoak eta txitxiburduntzia

Guraso elkarteak ikasturte amaierako jaia antolatu du Espaloian; jarraian haur jokoak, txitxiburduntzia eta San Juan sua egingo dira

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Bihar, martitzena, egun berezia izango da Elgetan ere. Herri Eskolan ikasturteko azken eguna izango dute eskolako umeek. Barikuan egin zuten ikasturte amaierako jaialdia, baina guraso elkarteak antolatuta ospakizun berezia egingo dute martitzenean ere. Elkarrekin bazkalduko dute ikasle guztiek eskolako jangelan; eta jarraian, agur festa izango dute Espaloian. Gurasoendako, irakasleendako eta ikasleendako antolatutako jaia da.

Amaitutakoan, 17:30ean, haur jokoak antolatu ditu Udalak kiroldegian; eta 19:30ean

urteroko txitxiburduntzia egingo dute gaztetxekoek. San Juan sua 22:30ean piztuko dute. Gaztelekuo gazteek batu dituzte sua egiteko kiroldegiko kantxa ondoan pilatuta dauden kartoiak eta egurrak. Ekaineko bariku guztietan aritu dira San Juan sua egiteko materiala batzen.

ATLETISMO EKINTZAK

Ekainean ekitaldiz gainezka dugu agenda eta zapatu goizean, atletismo proba ezberdinetan trebatzeko aukera izan zuten herriko umeek. Hamabost bat gaztetxo gerturatu ziren Egoki elkarteak Udalarekin batera antolatutako

atletismo jardueretara. Altuera zein luzera jausiak, pisu jaurtikea eta hesi zein abiadura lasterketak egin zituzten kiroldegiko kantxan. Gustura aritu ziren umeak. Diziplina horiek guztiak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izan zuten aste bukaeran.

Uztailerako ere kirol ekintzak antolatu ditu Udalak. Helduendako spinning, pilates, yoga eta tai-chi saioak proposatzen dituzte; umeendako eta gazteendako trialsin saioa uztailaren 9an eta 11n; eta gazteendako eta helduendako arku tiroketa saioa uztailaren 22an. Ekitaldi horietan izena emateko epea zabalik dago udaletxean.

ANTZUOLA > SAN JUAN JAIK

Arbola jasotzea eta dantzak izango dira San Juan bezperan

Herriko plazan banatuko dizkiete iluntzean, dantzen ostean, herriko balkoirik eta leihorik apainen jabe sariak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Ekainaren 23an, martitzenean, San Juan bezpera izanik, herri askotan egiten dira jai giroko ekitaldiak, eta Antzuola ez da salbuespena. 20:00etan plazan arbola jasotzea egingo dute, eta zuhaitza plaza erdian gertu dagoenean Oinarin dantza taldekoek euren saioa eskainiko dute. San Juan zortzikoa eta Antzuolako aurrekua dantzatu dituzte. Sua egitea ere pentasatu zuten arren, Kultura Batzordeak asmoa bertan beharra utzi du horretarako toki egokirik ez dagoelako.

BALKOI LEHIAKETA JAIETAN

Dantza saioaren ostean banatuko dituzte balkoirik eta leihorik ederrenen sariak. Etxeak lorez apaintzeko eta herriari bizitasun apur bat emateko egiten dute lehiaketa. Saridunak dira herriko alde berrian Lurdes Arregi, eta alde zaharrean Judit Iparragirre. Bakoitzak 90 euroko saria jasoko du.

Bestalde, datorren urtean sariak herriko jaietan banatzea erabaki dute loreak mardulago eta ederrago egoten direlako; eta herriko bi gune ere ez dituzte bereiziko.



Lurdes Arregiren balkoian jaso du alde berriko apainenaren saria.

GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA > ZERBITZUAK

Argindar hornitzailea aukeratuko dute herritarrek

Dituzten aukeren berri jakinarazten duen gutuna bidali die Udalak herritarrei

tako prezioan kontratua egitea enpresa komertzializatzaile batekin; Espainiako gobernuak izendatutako azken errekurtsoko bost enpresetako batekin egitea kontratua; eta CHC Energia enpresarekin egitea.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Uztailaren 1ean indarrean sartuko den legearen arabera herritarrek argindar hornitzailea aukeratuko dute. Orain arte Leintzargi enpresak banatu du argindarra Gatzagan; Iberdrolari erosten dio Leintzargi eta gero banatu. Baina orain, argindarraren hornidura elektrizitate komertzializatzen duten enpresek egingo dute.

Horregatik, aldaketaren gaineko argibideak eta dituzten aukeren berri emateko gutunak bidali ditu Udalak etxeetara. Hiru aukera izango dituzte herritarrek: norbere kontura adostu-

CHC ENERGIA ENPRESA

Gatzagako Udalak -Oñatikoak eta Aramaiokoak legez- CHC Energia izeneko enpresari utzi dio argindarraren komertzializazioa. CIDE -Energia Elektrokoaren Banatzaileak- kooperatibako bazkide egin da Leintzargi eta CIDEK Hidrocantabrico enpresarekin batera sortu du CHC Energia.

Hori horrela, aldaketarik egiteko eskatzen ez duten herritarrek CHC Energiaren bitartez jasoko dute argindarra uztailaren 1etik aurrera. Alkateak uste du herritar gehienek ez dutela eskatuko aldaketarik.

LEINTZ GATZAGA > ZERBITZUAK

Azkoagako auzotarrek hasi dituzte jaiak

San Juan bezpera, bihar, izango da Azkoagako auzotarrendako jai egun handia, baina lehen kartutxoak zapatuan erre zituzten. Herriko 12 musikariek kontzertua eman zuten elizan; kontzertu polit eta hunkigarria. Aurretik, Arientzako kanpai jotzaile eskolakoek errepikak jo zituzten; Azkoagako kanpai jotzailea hilda, auzotarrek ez zuten gogoratu ere egiten noiz entzun zituzten azkenekoz. Eta behin elizan egin beharrekoak eginda, auzo afariaren ordua iritsi zen. Ehun bat lagun batu ziren eta erronberia izan zuten ondoren. Goizaldera arte luzatu zen festa.




JON ANDONI AXPE

Kirola



> **CHALLENGE**
Jose Ramon De La Torre atletak 22,16 segundoko denbora egin zuen 200 metroko lasterketan > 22



> **PILOTA**
Debarroko txapelketan, Arrasate, Bergara eta Elgoibarko jokalariek izan ziren txapeldunak > 23



> **TXIRRINDULARITZA**
Elgetarrak nagusi, debagoiendar asko izan diren Quebrantahuesos proban > 24



OSPAKIZUNA Kopak eta urdaiazpikoa eskuetan hartuta eta txanpan aparrez bustita, ospatu zuten garaipena Paulaner Driblingeok.

JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA > ZALDIBARKO TXAPELKETA

Azken minutuan eta penaltiz, Dribling izan zen txapeldun

BI SARI HANDI

Zapatuan Liga irabazi zuen eta aurreko astean, Kopa

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Paulaner Driblingek irabazi du aurtengo Zaldibarko Liga, Lasagabaster mendean hartuta (3-2). Zapatuan jokatu zuten finala. Partidu polita bezain gogorra izan zen, gol gutxikoa eta intentsitate handikoa. Dribling hasi zen irabazten (2-0), baina atzean eskasago egin zituen gero minutu batzuk eta Lasagabasterrek aprobetxatu egin zuen hori parean jartzeko (2-2). Berdinduta zegoen neurketa eta, harmailetan,

luzapena jokatu beharko zutela pentsatzen hasita zegoen jendea. Azken minutuan eta penaltiz, Paulaner Driblingek gola egin zuen, ordea; eta orduantxe argitu ziren zalantza guztiak. Beraz, aurreko astean, Kopako txapela jantzi zuen taldeak Ligakoa jantzi zuen zapatuan. Denboraldi bikaina egin dute.

2. 3. ETA 4. POSTUAK

Driblingen kontra finala galduta, Lasagabasterrek bigarren postuarekin konformatu behar izan du. At. Celaya sailkatu da hirugarren: aurtengo Ligako irabazleari gehien aurre egin ziezaioken taldea zen behar bada, baina finalerdietan Lasagabasterren kontra galdu eta gero, ezin besterik egin. Eta McAwen Dauenek

ez du zortea aldeko izan. Liga irabazten hasi bazen ere, bi baja garrantzitsu izan zituen -min hartu zuen jokalariek batek eta kanpora joan zen beste bat- eta laugarren geratu dira, azkenean.

ANTOLATZAILEAK, POZIK

"Txapelketa oso ona izan da; eta amaiera, bikaina". Hitz horiekin laburbildu digu antolakuntza taldeko Ibai Gonzalezek aurtengo Zaldibarko Ligak emandakoa. Astebururo, jokalariek eta zale mordoa batzea lortu dute eta helburua bete dute, beraz.

Laster hasiko dira datorren urterako prestatzen: "Ea lortzen dugun, berriz ere, 18 bat taldek izena ematea", azaldu digu. Aurretik, baina, bizpahiru aste barru, 24 orduko txapelketa egingo dute.



GOL AUKERAK Lasagabasterrekoak Dribling taldekoen atetik gertu.

I. GONZALEZ



ANTOLATZAILEAK Finala bukatuta, argazkirako tartea hartu zuten.

G. ARANA

ATLETISMOA > GIPUZKOAKO CHALLENGEA

Markarik ez zen lortu, baina atleten maila bikaina nabarmendu zen

Jose Ramon de la Torre atletak 22,16 segundoko denbora egin zuen 200 metroko lasterketa proban

Gipuzkoako atleta asko Espainiako probatan izan ziren zapatuan

ospatu dira aste bukaeran eta Arrasateko eta Gipuzkoako atleta asko joan da kanpora".

Mojategiko Challenge proban, Jose Ramon De la Torre egindako marka azpimarratu behar da. Izan ere, 22,16 segundoko denbora egin zuen 200 metroko senior proban. Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan elite mailako kirolaria da De la Torre,

eskarmentuduna. Arrasaten ere maila bikaina dagoela garbi geratu zen zapatuan. Izan ere, zapatu goizean Euskadiko kadete txapelketan Malen Ruiz de Azuak urrezko domina eskuratu zuen. hiru metroko jauzia egitea lortu zuen 14 urteko gazteak. Hurrengo proba, Euskadiko absoluta, Durangon izango du Ruiz de Azuak. Izar Gorroño goitiak,

berriz, 3,23 metroko marka egitea lortu zuen jauzi hirukoitzean. Oihane Urtzelai Mojategin bere marka onena egin ez zuen arren, 5,20 metrotan ezarrita dagoen Espainiako markara iristeko gogor dihardu lanean. Izan ere, 5,19 metroan dauka bere marka ezarrita arrasatear gazteak.

Bestalde, aipatzea, proba guztiak ezin izan zirela egin. Hala,

pertika eta 800 metroko lasterketa probak bertan behera geratu ziren atletak Espainiako txapelketan zeudelako.

Jokatutako txapelketei dago kienez, pisu jaurtiketaz eta luzera eta altuera jauziak gozatzeko aukera izan zen. Lasterketa probatan, berriaz, 200 metro eta 400 metro hesien lasterketak egin zituzten Mojategin.

LORTUTAKO EMAITZAK

Markarik eskuratu ez bazen ere, 200 metroko lasterketan denbora ona egin zuten atletak. Gizonezkoetan, Remigio Diosdado Arrasate-Kanpanzar taldekoak 23,65 segundoko denbora egin zuen. Emakumezkoen finalean, berriaz, Marina Elozegi Bidasoa Atletico taldekoak, 27,40 segundoko denbora egin zuen. Aipagarria ere, pisu jaurtiketan Amaia Dublangek egindako marka 13,43 metrokoa, alegia. Gizonezkoetan, Juan Jose Mendizabalek 10,12 metroko jaurtiketa egin zuen.

Oihane Urtzelai > Luzeera jauziko atleta

"Espainiako marka minimora iristea da nire helburua"

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Oihane Urtzelai arrasatearra (18 urte) Espainiako marka minimotik oso gertu dago, zentimetro batera. Mojategin bere egun onena ez zuen izan, baina teknika hobetuz marka haustea da bere helburu nagusia.

Zein da zure helburua?

Une honetan 5,19 metrokoa da nire marka pertsonala. Beraz, helburua 5,20 metro lortzea da, Espainiako marka minimoa. Ekainaren 28an daukat Euskadi mailako txapelketa absolutua eta nire marka hobetzea espero dut. Salto hirukoitzeko marka hobetzea ere gustatuko litzaidake. Nire marka 11,17 metrotan dago eta minimoa berriaz, 11,20 metrotan dago.

Zein da gustukoen duzun proba?

Hasieratik luzera jauzian hasi nintzen. Baina denetik probatu dut: hesiak eta baita jauzi hirukoitza ere. Baina nire burua hoberen luzera jauzian ikusten dut eta Espainiako markara iristeko zentimetro batera nago.

Gogor lan egin behar da?

Atletismoa kirol sakrifikatua da eta txapelketa garaian ordu asko sartu behar da egunean. Gustuko izan behar duzun kirola da eta lan asko egin, emaitzak izateko.

Zein maila dago Euskal Herrian?

Abiaduran, hesietan eta batez ere gizonezkoen jauzi probatan maila oso ona dago. Baita Arrasaten ere.



JOSETXO ARANTZABAL



Senior mailako 200 metroko lasterketako finalean Remigio Diosdado arrasatearra nagusitu zen.

JOSETXO ARANTZABAL




Luzeera jauziko proban Maria Berger bizkaitarra nagusitu zen.

JOSETXO ARANTZABAL



Amaia Dublangek 13 eta 43 metroko jaurtiketa egin zuen.

JOSETXO ARANTZABAL



Gazteen mailako Rezusta eta Irizar -Bergara- Bolinaga eta Agirregabiriaren -Arrasate- aurka jokatzeko.

IRATI GOITIA



Arrasateko pilotariak garaikurrekin.

IRATI GOITIA



Bergarako pilotariak garaikurrekin.

IRATI GOITIA

PILOTA > DEBARROKO PILOTA TXAPELKETA

Arrasate, Bergara eta Elgoibar izan dira txapeldunak Debarroko txapelketan

Ez zen ezustekorik izan lehen bi partiduetan: kadeteetan Bergara nagusi eta gazte mailan Arrasate

Senior mailan Elgetako Ozkarbiko pilotariak jarri ziren aurretik (13-21) baina Elgoibarkoek eroan zuten txapela

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Debarroko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten zapatuan, hilak 20, Eibarko Astelena pilo-

talekuan. Izan ere, aurten Eibar-ko elkarteak izan da txapelketaren antolatzailea. Debagoiendarren arteko norgehiagokak jokatu zituzten kadete eta gazte mailatan, Bergara eta Arrasateren arteko norgehiagokak, hain zuzen. Eta senior mailan, Elgetako Ozkarbi elkarteko pilotariak jardun zuten Elgoibarkoen aurka.

KADETEETAN, BERGARA

Kadete mailako partidua bergarrendako izan zen: Bergara 22 Arrasate 9. Etxagibel eta Arabalaza arrasatearrek ez zuten zereginik izan Gallastegi eta Rezustaren aurka. "Arabalazak jokaldi politak egin ditu, dejadak, boleak, horma biak... baina Bergarako atzelariak izugarritzko indarra dauka eta ezin izan dugu ezer egin", adierazi zuen arrasa-

tearren entrenatzaile Mauri Zubillagak. Eta halaxe da, Rezustak indar handia dauka, batez ere ezkerrekin. Arrasateko aurrelari Etxagibelek, ostera, ez zuen jokoan sartzeko aukerarik izan: "Gure aurrelariak begira egon behar izan du". Arrasatearrek, gainera, tanto bukaera batzuetan ez zuten behar bezala asmatu eta horren eraginez bien arteko aldea handitu egin zen. "Emaitzarekin ez dugu ezustekorik hartu. Arrasaten pilotari dotoreak dauzkagu baina ez Bergarako atzelariaren indarra berdintzeko modukorik", jakinarazi zigun Zubillagak.

GAZTE MAILAN, ARRASATE

Gazteen arteko norgehiagokan, ostera, arrasatearrak nagusitu ziren: Arrasate 22 eta Bergara 14.

Rezusta eta Irizar bergarrek partidua hasi eta segituan 11 tanto egin zizkieten Bolinaga eta Agirregabiriari, 2-11 jarritz. "Oso urduri hasi du partidua Agirregabiriak eta hainbat hutsegite- ren ondorioz tanto asko egin dizkigute", azaldu zuen Zubillagak. Hala ere, bergarrek ez zutela behar bezala aprobetxatu arrasatearren urduritasuna uste du Reyes Azkoitia entrenatzaileak: "Jenio biziagoa erakutsi behar zuten gure jokalariek, gehiago behartu aurkariak, baina ezin izan dute".

Hala, 2-11 partzialaren ostean lasaitu egin zen atzelari arrasatearra. "Neu ere urduri jarri naiz eta postuak aldatzea proposatu diet pilotariei, baina Bolinaga buelta emateko konfiantzarekin zegoen eta halaxe izan da.

Pilotarik txarrenak Bolinagak hartu ditu eta Agirregabiria gozatzeko hasi da orduan onekin, hortaz, partiduari buelta ematea lortu dute", azaldu zuen Zubillagak. Izan ere, Bolinagak bere maila erakutsi zuen eta 20 tanto egitea lortu zuten, bergarrek 3 egin bitartean. "Ezustekoa eman gura genuen, baina bage-nekien horretarako egun txarra izan behar zutela arrasatearrek. Hasieran hala izan da baina ez dugu jakin aprobetxatzen", esan zuen Azkoitia.

SENIORRETAN, ELGOIBAR

Txapelketako hirugarren partidu- a, senior mailakoa, Elgeta eta Elgoibarren artekoa izan zen, eta azken horiek nagusitu ziren: Elgoibar 22 eta Elgeta 21.

Elgetako Ozkarbi elkarteren izenean jokatu zuten pilotariak, baina, ez ziren elgetarrak; Salaberriak (Elorrio) eta Iruretak (Beasain), Atxotegi eta Loiolaren aurka jardun zuten. Ondo hasi zuten partidua Ozkarbikoek, batez ere Elgoibarko aurrelariak hainbat hutsegite egin zituelako, eta 13-21 jarri ziren. Horren ostean, eta sinistea zaila bada ere, Ozkarbi elkartekoek ez zuten lortu beste tantorik egiterik; Elgoibarkoek, ostera, 9 egin zituzten eta 22ra iritsi. Partiduari buelta eman zioten ezker pare- tatic hasi zirenean ateratzen sakea; eta Ozkarbikoek, handik aurrera, ez zuten asmatu.

Partiduak bukatutakoan afal- tzen geratu ziren finalera iritsi- tako elkarteetako ordezkariak, Eibarreko elkarteak antolatuta: "Geuk ere behar dugu halako saritxoren bat-eta", esan zigun Mauri Zubillaga arrasatearrak.

Udaberriko Txapelketa, Bergaran

Atzo goizean, hilak 21, Udaberriko Txapelketa jokatu zuten Bergara-ko pilotalekuan. Eskuz binakako txapelketa da udaberriko -Gabonetakoa eskuz banakoa- eta 7 eta 14 urte arteko neska- mutikoen -neska bakarra- jardun zuten norgehiagokan. Benjamin mailan lau partidu jokatu zituzten, kimuetan (alebinak) bi partidu eta infantil mailan beste bi.

Partiduak bukatutakoan Herri Arteko eta Debarroko txapeldun eta txapeldunordeak hurreratu ziren pilotari gaztetxoei garaiku- rrak banatzeko.



Udaberriko txapelketako pilotariak, Herri Arteko eta Debarroko txapeldun eta txapeldunordeak eta antolatzaileak.

M.A.

TXIRRINDULARITZA > QUEBRANTAHUESOS PROBA

Aranguren eta Askasibar elgetarrak lehen hogeiren artean 'Quebranta'-n

lazkoaren oso antzeko denborak egin dituzte biek, baina aurrerago sailkatu dira

Eguraldi freskoa izan zuten: lehenengo haizea, gero lanbroa eta bukatzeko epel

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Debagoiendar asko izan ziren iaz legez Sabiñanigon, Quebrantahuesos proban. Batzuk parte hartze-
ra joan dira, 169 hain zuzen –iaz baino gehiago– eta beste batzuk animatzera. Eta iaz legez, Elgetarrak izan dira nagusi Debagoiendarren artean: Xabier Aranguren lehenengo 15. postuan (6:03:05) eta Oskar Askasibar 19.a (6:03:36).

ARAZO BARIK

Iazko beroarekin alderatuta fresko izan dute aurten, une batzuetan hotz ere bai. Lehen 60 kilometrotan, Candanchura arte, haize zakarra izan zuten aurka: "Haize horrek ez digu utzi denbora hobea egiten kilometro horietan", jakinarazi zigun Askasibar elgetarrak. Somport portuan, ostera, lanbroa izan zuten eta hotz. Horregatik egunkariak eta zirak banatu zizkieten ikusleek txirrindulariei. Jaitsitakoan, ostera, epelago



Xabier Aranguren lehen debagoiendarra Portalet gainera iristen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

zegoen eta txirrindulariak disfrutatzen hasi ziren orduan. "Gustura ibili naiz, inolako arazo barik. Batzuk esan digute hasieran pelotia elkartuta joan dela eta arazotxo batzuk izan dituztela baina niri ez zait halakorik gertatu", azaldu

zuen Askasibarrek. Hainbat txirrindulari jausi ziren Marie Blanc jaisten baina debagoiendarrek ez zuten minik hartu. "Eta hori garrantzitsua da", gaineratu zuten Askasibarrek. Elkarrengandik oso gertu ibili dira bi elgetarrak.

Iaz bi minutu pasatxoko aldea atezion Askasibarrek Arangureni eta aurten 31 segundukoa Arangurenen. Iazkoarekin alderatuta denbora ia berdintsua egin du Askasibarrek baina sailkapenean aurrerago geratu da (iaz 46.):

"Bosgarren aldiz etorri naiz Quebranta probara eta denborarik okerrenera aurtengoa izan da. Hala ere posturik onena eskuratu dut", zioen Askasibarrek.

Sailkapenaren informazio iturria: www.quebrantahuesos.com

Quebrantahuesos 2009 lasterketako sailkapena

ARAMAIO

294. Arana Arexolaleiba, Aitor	6:25:39
2144. Azkarate Beitia, Cesar	7:18:03
4162. Arriolabengoa Kalparsoro, Mikel	8:07:42
4256. Arriolabengoa Kalparsoro, Beñat	8:10:08

ANTZUOLA

359. Gurrutxaga Zubimendi, Iñaki	6:27:41
799. Asensio, Gaizka	6:44:41
912. Garmendia Zabalo, Imanol	6:47:09
914. Arana Arteaga, Benjamin	6:47:10
1388. Arin Fernandez, Lander	7:00:34
2025. Baleztena Zubikarai, Karlos	7:15:05
2110. Mendia Bilbao, Ibai	7:17:17
2519. Aranguren Fernandez, Jon	7:26:32
3434. Taboada Ruiz, Claudio	7:48:58

ARETXABALETA

367. Urkia Zulaika, Jon	6:27:55
424. Elkorobarrutia Arriola, Asier	6:30:45
804. Altuna Arkauz, Jon	6:44:48
1009. Lezeta Gartzandiá, Xabier	6:49:52
1134. Kortabarria Heriz, Haritz	6:54:08
2836. Atxa Azpiazu, Jon	7:34:47
3184. Eraña Elkorro, Ibon	7:43:23
3744. Garai Anduaga, Eneko	7:57:13
3844. Garate Magunacelaya, Isidro	7:59:40
4963. Amiano Salterain, Urtzi	8:31:30
6057. Guenetxea Sasiain, Asier	9:13:53
6125. Rosado Carrasco, Jesus Mari	9:17:59
6288. Irusta Ayerza, Alfredo	9:27:10
9644. Biteri Zubia, Ibon	10:20:01

ELGETA

15. Aranguren Arozena, Xabier	6:03:05
19. Askasibar Zubizarreta, Oskar	6:03:36
733. Arantzeta Agirre, Eñaut	6:42:52
1854. Elorriaga Royuela, Alain	7:29:37
2733. Arrazola Arabaolaza, Garikoitz	7:32:19
5950. Irazabal Elorriaga, Iñigo	9:09:15

ARRASATE

353. Abarrategi, Abel	6:27:36
1284. Arana Lasaga, Egoitz	6:57:52
1896. Arantzabal Ojanguren, Bernardo	7:12:18
1998. Azkarate Morras, Iñigo	7:14:42
2115. Berasaluze Velez de Mendizabal, Urtzi	7:17:22
2427. Bidaburu Arantzabal, Asier	7:24:22
2946. Castillo Santamarina, Javier	7:37:52
3460. Corral Ezkurra, Iñaki	7:49:41
3717. Dorronsoro Calleja, Jon	7:56:37
4165. Galan Gomez, Amalio	8:07:45
4226. Gallastegi Goikolea, German	8:09:25
4590. Gallastegi Uribe, Xabier	8:19:12
4859. Gonzalez Ozaeta, Bixente	8:28:12
4968. Gonzalez Romero, Mikel	8:31:36
4976. Hierro Garcia, Juanjo	8:31:58
4995. Ibabe Ruiz de Azua, Unai	8:32:42
5078. Jauregi Bidaburu, Iñaki	8:35:47
5214. Landa Azurmendi, Jose Mari	8:40:00
5677. Laskurain Bidaburu, Aitor	8:58:17
5897. Lezea Iriarte, Mikel	9:06:44
5898. Loiti Loiti, Oskar	9:06:45
5899. Nin Laskurain, Gorka	9:06:45
6117. Remon Sanchez, Manu	9:17:22
6119. Urtzelai Atxa, Xabier	9:17:36
7129. Zuazubiskar Isasti, Aimar	11:00:19

BERGARA

285. Unamuno Eraña, Igor	6:25:28
373. Aranguren Irazola, Gotzon	6:28:06
514. Mujika Agirre, Ibon	6:34:54
592. Zangitu Gil, Xabier	6:38:02
600. Arregi Beraza, Garikoitz	6:38:20
706. Taboada Ruiz, Jose Luis	6:41:39
961. Agirrezabal San Miguel, Igor	6:48:21
963. Arrieta Etxeberria, Gorka	6:48:28
2157. Arregi Biziola, Manu	7:18:19
2174. Martin Manzanal, Jose Manuel	7:18:45
2596. Aranguren, Aritz	7:28:45

3235. Unamuno Lekuona, Jon	7:44:24
3411. Pineda de la Cruz, Patxi	7:48:33
3900. Eguren Laskurain, Xabier	8:01:01
3905. Arozena Bergaretxe, Jose Mari	8:01:13
4405. Elkoro Arana, Mikel	8:14:03
4543. Sanz Segovia, Jesus	8:17:48
4966. Eguren Gabiria, Beñat	8:31:34
5067. Gallastegi Luarizaristi, Jon Ander	8:35:24
5208. Casanellas Ameskoa, Javier	8:39:53
5448. Arrieta Arkauz, Jon	8:49:00
5554. Almorza Aranguren, Mikel	8:53:52
5881. Teran Salgado, Oscar	9:05:57
6163. Verguizas Nieto, Antonio	9:19:51
6164. Otaegi Martin, Josu	9:19:53
6996. Gonzalez Urteaga, Ana	10:28:46
6997. Larrañaga Larrañaga, Gorka	10:28:46

OÑATI

90. Kortabarria Paredes, Igor	6:13:18
236. Albizu Uriarte, Jon	6:23:43
284. Igartua Urtzelai, Iñaki	6:25:28
532. Arregi Urtzelai, Aitzol	6:35:28
689. Rojo Diez, Luis	6:40:59
774. Urtzelai Agirrebaltzategi, Asier	6:44:01
862. Guridi Urtzelai, Xabier	6:45:58
993. Molina Diz, Juan Cecilio	6:49:20
1093. Gerrikagoitia Arrien, Jon Kepa	6:52:52
1234. Elortza Zubia, Unai	6:56:45
1261. Agiriano Bengoa, Jesus Mari	6:57:14
1561. Erostarbe Arkauz, Jose Antonio	7:05:03
1751. Lizarralde Lizarralde, Gorka	7:09:14
1838. Lertxundi Ugartemendia, Jose Mari	7:11:05
2147. Sierra Gartzia, Jose Antonio	7:14:07
1967. Chohan Madinabeitia, Adrian	7:14:09
2068. Perez Diez, Cayetano	7:16:11
2147. Sierra Gartzia, Jose Antonio	7:18:07
2200. Laskurain Markuleta, Arkaitz	7:19:22
2236. Otxoa-Aizpurua Calvo, Agustin	7:19:58
2679. Aldekoa Beitia, Jabier	7:30:43
2709. Jausoro Murgiondo, Iker	7:31:37

3007. Iriondo Martinez de Zuazo, Julen	7:39:21
3051. Gartzia Urtaza, Andoni	7:40:30
3293. Larrea Igartua, Iñigo	7:45:39
3317. Lasagabaster Madinabeitia, Joseba	7:46:13
3589. Negreira Cobas, Jose Antonio	7:53:05
3590. Etxeberriarteun Uribetxe., Jose Luis	7:53:07
3711. Egaña Herran, Asier	7:56:31
3818. Axpe Ezpeleta, Patxi	7:59:02
4242. Robles Zugadi, Iker	8:09:44
4544. Campo Ibarrondo, Ivan	8:17:52
4545. Baiñ Regueiro, Gorka	8:17:53
4784. Villar Umerez, Jon	8:25:34
4916. Madina Agurre, Iñigo	8:29:40
5123. Iturbe Agirrebaltzategi, Andoni	8:37:41
5231. Iturbe Murgiondo, Agotz	8:40:53
5468. Martin Peralta, Mikel	8:49:46
5883. Urteaga Bikuña, Iñaki	9:06:09
5884. Martin Peralta, Ainhoa	9:06:09
5987. Anduaga Alberdi, Roberto	9:10:37
6002. Gomez Campos, Igor	9:11:19
6058. Urtaza Gamba, Juan Cruz	9:13:54
6059. Zubizarreta Urbizu, Javier	9:13:55
6131. Guridi Guezalaga, Juan Luis	9:18:12
6571. Txintxurreta Igartua, Roberto	9:46:38
6689. Larrea Igartua, Ana	9:55:04

ESKORIATZA

290. Gallastegi Goikolea, Emete	6:25:33
1090. Perez de Eulate Errarte, Josu	6:52:48
1479. Errarte Mugika, Mikel	7:03:21
1494. Gabilondo Urtaza, Xabier	7:03:42
1738. Zubizarreta Elizburu, Gaizka	7:09:02
4050. Galarraga Beitia, Iker	8:04:36
4082. Uribe, Beristain, Goio	8:05:25
4705. Agiriano Zubizarreta, Aitor	8:22:53
4827. Castañeda Sanchez, Alfonso	8:26:59
4924. Salgado Mata, Jon	8:29:53
5853. Garcia Martin, David	9:05:00
5854. Fachal Moral, Javier	9:05:01
6943. Errasti Iriarte, Joseba	10:20:00

PILOTA > SAN JUANETAKO JAIALDIA

Irujo eta Beroiz 22-17 nagusitu ziren Uarkape frontoian

Lehen eta bigarren mailetakoko buruz buruko txapeldunek pronostikoak bete zituzten

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Irujok eta Beroizek 22-17 menderatu zituzten Gonzalez eta Pascual, atzo, Uarkapen. 53 minutuko partiduan, sakez, tanto bat egin zuen Irujok eta bi Gonzalezek; jokoan, 12 egin zituen Iberokoak eta bost Gonzalezek. Markagailua berdinduta egon zen hainbat momentutan, baina Gonzalez-Pascual bikoteak momentu bakar batean ere ez zuen lortu aurretik jartzea. Lehen eta bigarren mailetakoko buruz buruko txapeldunak faborito ziren Arrasaten, eta pronostikoak bete egin ziren, beraz. Uda

honetako modako bikotea izango da.

Oporretatik bueltan, Irujo frontoian ikusten genuen bigarren aldia zen atzokoa. Ikusmin handia sortu zuen, sarrera polita izan zen Uarkapen eta gazte-oxoak atzetik ibili zitzaizkion.

DEL REY ERE BIKAIN

Aurretik, Del Reyk eta Galarza VI.ak 22-20 irabazi zieten Berasaluze IX.ari eta Urberuagari. Maila ona eman zuten laurek eta partidu gogorra izan zen oso. Bereziki Del Reyk tanto politik egin zituen.



Juan Martinez de Irujoren parte-hartzeak erakargarri egin zuen San Juan jaien barruan antolatutako jaialdia.

J.ARANTZABAL

GIMNASIA ERRITMIKOA > BERGARA

Ariznoa elkarteko gimnastek amaitu dute ikasturtea

Bariku arratsaldean, Labegaraietan, eskainitako saioarekin agurtu zuten denboraldia; lagun eta senitartekoekin, goraino bete ziren harmailak

G.A. > BERGARA

Bi orduko ikuskizun dotorea eskaini zuten Ariznoako gimnastek egubakoitz arratsaldean. 7 urtetik hogei pasatxo arteko 120 bat lagun igaro ziren Labegaraietako kantzua erditik, ikasturtean ikasitakoak jendaurrean erakusteko. Hitzordu garrantzitsua izan zen eurentzat eta baita gurasoentzat ere, seme-alaba txikiak dituztenentzako gehienbat, oraindik

txapelketetara joaten ez direnez, euren erakustaldiak ikusteko aukera handirik izaten ez dutelako urtean. Gimnasia eta koreografiak, denetarik egin zuten apur bat eta, egindakoagatik, opariak jaso zituzten, bukaeran. Gainera, oparia eman zioten Gipuzkoako Gimnasia Federazioko presidente Brigitte Ibensi ere; Bergaran izan zen, saioa ikusten. Entrenatzaileei, berriz,

denboraldian jokatu diren Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan eskuratutako trofeoak banatu zituzkieten, egindako lanaren errekonozimendu gisa.

25. URTEURRENA

Bukatu berri den ikasturtea berezia izan da Ariznoarentzat, kontuan izanik 25 urte egin dituela elkarteak. Eta, hain zuzen ere, urtemuga horren barruan antolatutako ospakizunak prestatzeko denbora behar izan dutelako, ikasturte hasieran ohi baino emaitza kaskarragoak lortu zituztela kontatu digu zuzendaritzako kide Txomin Cabok. Zailtasunak zailtasun, 25 urteak ondo baino hobeto ospatu dituzte, ordea, eta ez hain ondo hasitako denboraldia bikain bukatu dute.

Ariznoako gimnastak oporretan daude orain, baina nagusienek ez dute atsedenerako denbora askorik hartuko: San Juan ostean berrekingo diete mantentze saioei. Erabateko normaltasunera irailan itzuliko dira, eta txikiak ere orduan hasiko dira berriz lanean. Interesa duten guztiak denboraldi berrirako izena ematera animatu ditu Txomin Cabok.

DRAGOIREN SAIORIK EZ

Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldea ere erakustaldia egitekoa zen egubakoitz arratsaldean, Seber Altube plazan. Eurria ari zuela-eta, bertan behera utzi behar izan zuten, ordea.



Lagun eta senitartekoen begiradapean egin zuten gimnastek saioa.

J.A.

IRRATI UHINEN BIDEZKO AUTOAK > ERAKUSTALDIA

Espero baino zale gutxiago batu zen Laubide plazan

Etxean autoak dituztenendako saio praktikoa egin asmo zuten antolatzaileek

IAZKO SAIOAN, ASKOZ HOBETO

Dos Pistones elkartekoek pare bat urte daramatzate lanean eta atzo Arrasaten egindakoa euren zaletasuna erakusteko eta irrati uhinen bidezko auto jabeekin harremanak sendotzeko egin duten bigarren erakustaldia izan da. Lehendabizikoa Eskorriatzen egin zuten iaz, San Pedro jaien barruan eta, aldi hartan eguraldiak lagundu ez bazuen ere, parte-hartze maila ona lortu zuten. Ordukoak emandakotik urrun geratu da oraingoa eta ikusi egin beharko besterik antolatzen duten.

Epe motz-ertainerako txapelketak dituzte helburu. Espainiakoaren barruan, Galizian jokatu berri den lasterketan hirugarren geratu zen Sergio Frutos elkartekidea. Irailurrian, Bilbon izango den proban ere lehiatuko da Frutos.

G.A. > ARRASATE

Arrasateko Dos Pistones irrati uhinen bidezko autoen elkarteko lagunak ez zeuden oso pozik atzo iluntzean. Mota horretako autoak etxean dituztenentzat saio praktikoa egin asmo zuten Laubide plazan, mantentze lanak nola egiten diren erakusteko, gehienbat. Baina espero baino zale gutxiago batu zitzaizkien eta hasierako asmoak aldatu egin behar izan zituzten: erakustaldia egin zuten, ikusminak bultzatuta gerturatu zirentzat. 12:00ak inguruan batu zen jende gehien.



Autoak mantentzen jakitea garrantzitsua da oso.

JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

Eskola Kirola agurtu dute Oñatin datorren ikasturtea arte

SARIAK GUZTIONTZAT Ikasturte osoan fin aritu ondoren, merezitako dominak eta kopak banatu zituzten

POZIK OPORRETARA Asteon amaituko dituzte eskolak Oñatin; udako oporrak hartzeko gogoz daude umeak

AMAITZEKO Goiza bukatzeko hainbat produktu sorta zozketatu eta *lunch*-a egin zuten antolatzaileek

NEREA MENOR > OÑATI

Goizean goiz eguzkiak esnatu zituen Oñatiko umeak. Egunean zehar lainoak agertzen joan ziren arren, gaztetxoak ez ziren kikildu eta kiroldegiko atea zabalduta orduko bertan ziren, sari banaketa noiz hasiko zain.

Aurreko zapatuan esan zioten agur Eskola Kirolari, edo behintzat, gero arte, irailean berreskuratu dituzte eta baloiak eta kirol arropak. Orain, udaz gozatzeko gogoarekin daude guztiak. Bi hilabetetan zehar ondo baino hobeto pasako dute lagun eta gurasoekin. Batzuk kanpora joango dira, besteak inguruan geldituko dira eta badaude penaz hartuko dituztenak ere lagunak faltan botako dituztelako.

11:00etan hasi zen Zubikoan sari banaketa eta talde askok eraman zuten kopa etxera, baita dominak ere. Zapaturu buru belarri ibili ostean euren lana sarituta ikustea merezi zuten oñatiarrek. Sari banaketaren ondoren, dende emandako hainbat lote zozketatu ziren gaztetxoaren artean: baloiak, kamisetak, toailak...

ANTOLATZAILEEI ESKERRAK

Dagoeneko ohikoa den bezala, harmailak bete-beteta egon ziren zapatu honetan ere. Ikasturte osoan zehar bertan ibili direnak asko dira eta hauei eskerrak emate aldera, sari banaketaren ostean *lunch*-a antolatu zuten guraso eta antolatzaileentzat. Hauen lanak egiten ditu eta posible, hein handi batean, horrelako ekintzak.



Lizarrak. Naiarak, Nereak, Maddik, Keltsek, Laiak, Alaitzek eta Irenek osatzen dute taldea.



Usoak. Ander, Unai, Aitor, Mikel, Imanol, Jordi, Aritz eta Julen batera jokatu dute ikasturte honetan.



Zozoak. Erikek, Imanolek, Unaik, Asierrek, Xabik, Unaik, Markelek eta Aitorrek domina jaso zuten zapatuan.



Beleak. Jason, Julen, Aritz, Urko, Aimar, Enaitz, Unai, Xabi eta Jon dira taldeko kideak.

GUSTURA JOKATU DUZUE ESKOLA KIROLEAN?



Eider eta Ane
Elkarhezi

Oso ondo pasa dute Eiderrek eta Anek Eskola Kirolean. Futboleant, saskibaloian edo eskubaloian aritu direnean oso ondo ibili dira, eta lagun berriak ere egin dituzte. "Batzuk gelakoak dira, baina lagun berriak ere egin ditugu".



Alaitz, Irene eta Madalena
Elkarhezi

Hirukote honek ere primeran pasatzen du Eskola Kirolean. Hirurei gustatzen zaie kirola, gehienbat futbola, horregatik, eskola kirolek kanpo ere jokatzen dute: "Merendotetan ere futboleant aritzen gara".



Xabi eta Jon
Txantxiku Ikastola

Sarien zain aurkitu genituen Xabi eta Jon. Lagunekin berriketan zeudela, tartetxo bat egin ziguten Eskola Kirolari buruz aritzeko. "Asko gustatzen zaigu Eskola Kirola, futboleant edo eskubaloian aritzen garenean batez ere".



Gaizka eta Josu
Txantxiku Ikastola

Oporrak hartzeko gogoz zeuden zapatuan Gaizka eta Josu. Izan ere, Txantxiku ikastolan gaur bertan hartzen dituzte oporrak. Hala ere, Eskola kirolean ederto pasatzen dutela esan ziguten eta kirol denak gustuko dituztela.



Iñigo Errastik Angiozarren dauka motorra, baserrian.

JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Errasti > Motorzalea

"Komeni da ondo entrenatzeko ibarrean zirkuitu egonkorra izatea"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Begararra jaiotzez, Oñatin bizi da gaur egun Iñigo Errasti. Txikitatik izan du motorrekiko zaletasuna. Orain lau urte motorra erosi eta lasterketetan parte hartzen hasi zen. Hala, Euskadiko kopako hirugarren postuan geratu zen iaz. Errastik dio alaba txikia duenetik ez duela "entrenatzeko gura beste denbora".

Zela hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

Orain lau urte erosi nuen motorra -KTM EXC 300-. Mendi ibiltzen nintzen, baina azkenean aspertu egin nintzen mendian ibiltzeaz. Hortaz, lasterketetan parte hartzea erabaki nuen. Egin daitezkeen modalitateen artean lur gogorreako -enduro deiturikoa- da merkeena.

Euskadiko txapelketan ibilitakoa zara, eta emaitza onak lortu dituzu gainera.

Hiru aldiz parte hartu dut Euskadiko txapelketan. Lehenengo hiru urtetan junior mailan ibili nintzen, eta aurreko senior mailan nabili. Lehenengo urtean laugarren geratu nintzen, hiru-

garrenarengandik bi puntura. Bigarren urtean ez nuen zortetik izan eta erretiratu egin behar izan nuen, eta iaz Euskadiko hirugarrena izan nintzen.

Maiatzean Kros Country txapelketa egin zenuten Bergaran. Gipuzkoan egiten den lehena izan zen?

Horrelako lasterketa gehienak Bilbo aldean egiten dira. Gipuzkoako motorzaleek antolatuta zuten Bergarako proba. Kros Countrya motokrosa eta enduroren arteko nahasketa da. Horrelako proba bat egiten den lehenengo aldia izan zen, eta oso giro ona egon zen.

Gainera, gaur egun mendian ibiltzea zaila da, batez ere baimekin lortzerako orduan daude zailtasunak. Hortaz, horrelako proba bat egiteko samurrago lortzen da baimena.

Debagoiengan behin betiko zirkuitu baten beharra dagoela diozue behin eta berriz.

Bai, Debagoiengan ez dago zirkuiturik; gure ustez komeni da behin betiko zirkuitu bat izatea

"Gu ez gara profesionalak, ondo pasatzera irteten gara motorrean"

"Askotan pentsatzen dut hobe dela denboraz uztea betiko min hartzea baino"

entrenamenduak egin eta behar bezalako lasterketak antolatzen. Zaletasuna badago, eta ikusten dugu beste kirol batzuetarako dirua badagoela. Hortaz, gurekin ere akordatzea eskatzen dugu.

Non entrenatzen duzue?

Mendira ateratzen gara entrenatzera. Baina, entrenamenduak baino gehiago, mendian ibiltzea izaten da. Gu ez gara profesionalak, ondo pasatzera irteten gara. Horregatik, enduro probek leku ezberdinetan arazo barik ibiltzeko aukera ematen dute.

Normalean mendiko pistetan ibiltzen gara, eta entrenatu gura

dutenak motokros zirkuituetara joaten dira.

Bestalde, entrenamendu fisiko berezirik egiten duzu?

Nik neuk ez dut egiten, baina beste batzuk egiten dute. Fisikoki entrenatzea ondo dator, motorrean ordu bate ibiltzea oso gogorra da-eta. Bizikletan ibili daiteke, edo igeri egin...

Nire kasuan, ez dut entrenatzeko denborarik izaten eta motorra lasterketa egunetan bakarrik hartzen dut.

Motorraren gainean zeintzuk dira zure alde onak eta txarrak?

Motokroseko pistan, adibidez, ez naiz hain ondo ibiltzen. Saltoak egiten, adibidez, ez daukat batere esperientziarik.

Gustatzen zaidana da leku txarrak, lokaztutakoak. Uste dut horrelako lekuetan aldea ateratzen diedala motokroseko jendeari. Motokroseko jendeak mendian kale egiten du.

Saltoak egiten ikasteko entrenatu egin behar da, eta hemen ez dago pistarik.

Kirol garestia dela esango zenuke?

Bai. Lehenengo motorra erosi behar da; eta, gero motorra behar bezala eduki behar da. Gurruplak aldatu behar izaten dira, balaztak... batzuk, gainera, urtero aldatzen dute motorra. Horri gehitu behar zaio gasolina eta motorra eramateko atoaia.

Aurrera begira baduzu asmo edo helburu konkreturik?


Motor munduan jarraitzearekin nahikoa dut. Bizi dugun krisi egoera kontuan hartuta, motorra eduki eta ibiltzeaz konformatzen naiz.

Gainera, beharrezkoa izango da lesiorik ez izatea, ez da?

Bai, askotan pentsatzen dut hobe dela denboraz uztea betirako min hartzea baino. Nik, orain arte, ez dut ezer izan, baina lesioak gogorrak izan daitezke.

Amaitzeko, beste ezer esan gura duzu?

Eskertu nahiko nuke Gorostiko Irene lasterketa guztietara etortzen delako laguntzera.



Gaztetxoek zein helduek egunero erabiltzen dituzte sare sozialak.

GOIENKARIA

SARE SOZIALAK > EZJAKINTASUNA

Sare sozialak, askoren eguneroko hitzordua

Sare sozialak zer diren eta zertarako erabiltzen diren jakiteko, sare sozialak erabili behar dira, hori da berorrek ezagutzeko modua

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Egunero eta askok erabiltzen dituzte sare sozialak euren lagunekin hitz egiteko, argazkiak trukatzeko, bideoak ikusteko edo sekretupeko kontuak esateko. Gaztetxoak ere sartzen dira sare horien barruan eta guraso askoren kezka sortzen du horrek. Kezka horrek, gainera, pentsamendu txarrak ekartzen ditu, askotan, berekin.

Teknologia berrietan aditua den Patxi Gaztelumendik sare sozialek gaztetxoaren artean duten pisua, presentzia, eta era berean gurasoen kezka batu ditu *Guraso.com* atarian argitaratutako artikulu baten.

IKER ETA EIRE

"Iker eta Eire kezkatuta bueltatu dira etxera. Kalean asko entzuten da *facebook*, *tuenti*, *flickr*, *youtube*, *twitter*, *myspace* eta horrelakoen gainean. Aukerak, abantailak, sareak, lagunak, gehitu, ezagutu. Joan etorriko mezuak, hizkuntzak eta ideia

berriak. Etxean, telebistan, eta eskolan berriz, berba onik ez", dio Arrasateko gazte bulegoan lana egiten duen Gaztelumendik.

Gurasoen kezka, askotan, ezjakintasunak ere sortzen ditu. Egongo dira larregi arduratzen direnak eta ordenagailu aurrean umeak zertan dabilzan ez dakiten gurasoak; eta oreka lortzea izango da zaila gai horretan ere. Sare sozialak zer diren eta zertarako erabiltzen diren jakiteko, sare sozialak erabili behar dira, jakiteko zertarako eta zein punturaino erabili daitezkeen.

Sare sozialen lotura batzuk

www.zugaz.com

www.facebook.com

www.twitter.com

www.tuenti.com

www.youtube.com

www.myspace.com

ALARMISMOA EDO ERREALITATEA

Haibat gurasok erantzun diote Patxi Gaztelumendik idatzitako artikulu horri eta batzurenak "alarmismoa" dena, errealitatea da besteendako.

Bere esperientzia ere kontatu du guraso batek *Guraso.com* webguneko artikulu horretan: "8 eta 13 urteko sema-alabak ditut eta astean hiru aldiz sartzen gara Interneten. Garai berriak. Gure txikiak ere prest egon behar dira etorkizuneko erronkei begira. Ez dut uste Internetek kalte egiten digunik. Gauza asko errazten dizkigu eta informazioa gero eta eskuragarriagoa da. Sare sozialetan murgiltzeko aukera paregabea eskaintzen digu", dio Marta izenarekin sinatu duen irakurleak. Beste irakurle batek, ordea, Mikelek, benetako harremanei buruz galdetzen dio Martari, "hezur eta haragizko sare sozialei" buruz.

GUZTIOK

"Sare sozialetan berba egitea da kontua. Entzutea. Esatea. Labur edo luze. Argazki edo kafe baten ondoan. Sare sozialak gu gara. Zu eta ni. Iker eta Eire. Guztiok", dio Patxi Gaztelumendik sare sozialei buruzko artikuluaren.

Elena Lopez de Arana > Psikopedagoga

"Atxikimendu trasbasea da umeak eskolara egokitzeko prozesuaren helburua"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Umeak eskolara egokitzeko prozesuaz hitz egin du Elena Lopez de Arana (Gasteiz, 1979) psikologo eta psikopedagogak Bergaran, San Martin Agirre ikastetxeak gonbidatuta.

Nolakoa izan behar du eskolara egokitzeko prozesua?

Umei eta familiei begira egin behar da prozesu hori. Ikastetxe bakoitzak bere epeak zehazten ditu, baina umeen araberakoa da iraupena.

Umeak ez ezik, gurasoek ere egin behar dute, beraz, egokitzapen prozesua?

Egokiena da gurasoek umeekin batera egitea prozesua. Gurasoek ezin badute, umearendako erreferentziakoa den norbait, aitona-amonak edo zaintzailea, adibidez, egotea komeni da.

Zer lantzen da egokitzapen prozesuan, zein da helburua?

Helburua ez da umea toki berrira, eskolara, ohitzea, atxikimendu trasbase bat egitea, baizik. Umeak konfiantza du berarendako erreferentziakoa den pertsona horrengan eta garrantzitsua da umeak ikustea pertsona horrek hezitzailearekin konfiantza duela.

Komeni da aurretik hitz egitea eskolari buruz?

Bai. Ikastetxearen aurretik pasatzean horra joan behar duela esan, beste zein umerekin egongo den esan, irakaslearen izena aipatu...

Errepikatu daiteke egokitzapen prozesua?

Bai. Adibidez, prozesuan gaixotzea edo egokitu eta berehala oporrak izatea.

Zer egin umeari egokitzea kostatu egiten zaionean?

Segurtasuna bermatu behar diogu. Prozesua lasaia izaten da, normalean, baina piska bat okertzen bada, gurasoak lasaitu behar dira neurri berean umea lasaitzeko.

Nola lortu umea ondo egokitzea eskolara?

Garrantzitsua da hezitzaileen eta gurasoen arteko harremana lantzea, eta informazio trasbasea egotea.

"Egokitzapena hasi aurretik, komeni da umeari eskolari buruz hitz egitea"

"Prozesua lasaia izaten da baina okertuz gero, gurasoak lasaitu behar dira umeak lasaitzeko"



Elena Lopez de Arana.

GOIENKARIA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



guraso.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **BIG BAND**
Ikasturte bukaerako kontzertu dotorea egin zuten egubakoitzean Monterron parkean > 30



> **MARGO LEHIAKETA**
V. Herensugea Pintura Lehiaketa Arrasateko Juan Jose Altunak irabazi zuen > 30



> **RIP**
Egubakoitzean Bolinaga anaiek kontzertua egin zuten Hatortxu Rocken, gonbidatuekin > 31



Ikuskizun ederra izan zen hainbeste moto batzea.

JOSETXO ARANTZABAL



Mota askotako motorrak ikusi ahal izan ziren Laubiden.

J.A.



Arrasateko, Bartzelonako eta beste hainbat herritako lagunak batu ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

Motozaleen arteko laguntasuna eta burrundara, ardatzak

Herriko motozale koadrila baten ekimena izan da aurtengoa ere

140 bat motok ibilaldia egin zuten inguruko herriak bisitatuz

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Pozik daude antolatzaileak Motorrero Egunak izan duen harrerarekin. Iaz lehenengo aldiz antolatu zuten, baina gauza txikiagoa izan zen; aurten, berriz, Udalarekin berba eginda, San Juanetako egitarauan sartu dute.

Jaia herriko motozale koadrila batek antolatu du; 12 bat lagunek. Euren helburua da erakustea Arrasaten motozale asko eta zaletasun handia dagoela eta herria apur bat girotzea.

Gainera, uste baino motozale gehiago etorri ziren: 140 bat. Arrasatearrez eta ibarrekoez

gain, Debatik, Bilbotik, Eibartik eta Bartzelonatik ere etorri ziren, euren choperrak, naquet-ak, railak edo errepideko motorrak pasiatu eta erakustera.

Laubideko txosna eguerdian zabaldu zuten arren, 16:00etan hasi zuten moto txangoa. Arrasatek Elorriora abiatu ziren, gero Elgetara eta Eibarrera. Handik Bergarara jo zuten, eta gero, Arrasate atzean utzita, geldialdia egin zuten Marisa jatetxean. Izena ematearen truke, pintxoak eta edatekoak zituzten han zain. Leintz Gatzagara jo zuten gero, eta berriro Arrasatera. 140 bat motor bate-

ra ikustea ez da ohikoena, eta bat baino gehiago zur eta lur gelditu zen ikuskizunarekin.

ERREPIKATZEKO MODUKOA

Laubidera bueltatzerakoan, giro oso onean zeuden eta lasterketa bitxia egin zuten: geldoen lasterketa. Hala, tramu estu bat poliki-ekin egin zuena Arrasateko Ur-tzi Pereda izan zen.

Horren ostean, hainbat opari zozkatu zituzten; guztiak motoren zaletasunarekin lotutakoak eta herriko saltoki eta tabernek emandakoak: eguzkitako betaurrekoak, elastikoak eta beste.

Egunari bukaera emateko, doinu rockeroak izan ziren Arrasateko Bitter Honey eta La Txusma taldeekin.

Antolatzaileek esan ziguten Udalak laguntzen badie, datorren urtean ere antolatuko dutela. Eta Bartzelonatik bi Suzuki GSren gainean 635 kilometro egin zituzten Fran, Esther eta Sergiok ere errepikatuko dutela esan digute. "Debagoieneko lagun batzuekin Montmelon egon ginen, eta haiek gonbidatu zituzten. Harrituta gelditu gara hemengo paraje eta giroarekin; asko gustatu zaigu inguru hau".

NON: Arrasateko Monterronen.**EGUNA:** Barikua, ekainak 19.**ESTILOA:** Jazz, blues, latin.**IRAUPENA:** Ordu eta hamar minutu.**MAIDER ARREGI > ARRASATE**

Zirimiriari aurre eginez, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak emanaldi ederra eskaini zuen. Ikasturte osoan zehar egindako lanak txalo zaparradak eragin zituen bertaratu zirenen artean. Jazzak, bluesak, funkyak eta doinu latindarrek euriari aurre eginez, erritmo biziak gustura entzuteko aukera izan zen.

Jazz doinuekin eman zion hasiera Arrasate Musikaleko Big Band taldeak. Bibrafonoaren doinuek bat baino gehiago mugimenduan jarri zuen kontzertu hasieran. Ondoren etorri zen Amaia Arriaranen ahots goxoak gau freskoa bero-bero jarri zuen. Arriaranek eskainitako bossa novak Brasilgo 50eko hamarkadara eman gintuen. Dotorezia nagusi eszenatokian. *Flying To The Moon* edota *Wave* abestien lelo itsaskorrek ikusleak abesten jarri zituzten.

Feed back eta interaktibitatea lortu zuen Big Band-ek publiko-arekin. Amaia Arriaranek joko bat ere proposatu zien ikusleei *Alright, ok, you win* abesti dibertigarria elkarrekin abesteko. Eta publikoak, guztiz entregatuta, ederto jarraitu zuen Arriaranek proposatutako jokoa.

Instrumentu bakoitzak ere bere momentu magikoa izan zuen. Hala nola, Migel Angel Maniegaren tronpeta doinuek 60ko hamarkadako filmetan murgildu gintuzten. Txalo zaparradak jaso zituzten ere Eber Sanchez eta Jose Barrio gitarra jotzailen *punteo* indartsu eta biziak.



Arrasate Musikaleko Big Band taldea 23 musikaririk osatzen dute eta Zigor Martinez zuzendariak zazpi urte darama taldea gidatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA > BIG BAND TALDEAREN KURTSO AMAIERAKO KONTZERTUA

Dantza erritmoak nagusi

Bateria eta saxofoiaren presentzia ere nabarmena izan zen. Erritmo bizi eta azkarrak eskaini zizkiguten Jesus Alvarez saxofoi jotzaileak eta Jose Ramon Elkoro bateriak. Publikoak "beste bat, beste bat" behin eta berriro eskatuta, bukaera borobila eman zioten emanaldiari latin jazz doinuekin Big Band-ekoek.

GUSTURA, EGINDAKOAREKIN

Kontzertu ostean, Zigor Martinez gustura azaldu zen egindako lanarekin. "Hasiera batean euriagatik suspenditzea ere pentsatu genuen, baina dena muntatuta geneukanez eta jendea ere animatu denez aurrera egin dugu, eta gustura gaude egindako lanarekin. Big Band taldeak, 2000. urte-

an sortu zenetik, urtero eman du ikasturte bukaerako kontzertua. Urtean zehar egindako lana erakusteko modu polita da. Martinezek kontatu digu ikusleak gustura entzuten duten abestiak direla. "Batzuk oso ezagunak dira, baina urteak aurrera doazen heinean oraingo autoreen abestiak ere publikoari erakustea nahi

izaten dugu. Entzundako abesti gehienak berriak izan dira". Orain oporrak hartuko dituzte irailer arte, baina kontzertuak ematea dute helburu. "Oraindik dena lotzeke dago, baina ziurrenik Durangoko Kafe Antzokian emango dugu kontzertua irailean. Errepertorio polita daukagu eta grabatzea ere nahi dugu".

LEHIAKETA > V. HERENSUGEA PINTURA LEHIAKETA

Kolorez jantzi zuten alde zaharra 30 margolarik

Epaimahaiak Juan Jose Altuna arrasatearrari eman dio lehen saria, "originala" izateagatik

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Jende ugari erakarri zuen zapatuan V. Herensuge Pintura Lehiaketak. Alde zaharreko txoko ezberdinak margo usaiaz eta kolorez jantzita, artearekiko grina eta motibazioa bati baino gehiagori piztu zitzaion. Maila bikaina erakutsi zuten artistek. Horixe azpimarratu zuen epaimahaiak. Guztira, 30 parte-hartzaile izan ziren, horietatik bost gainera 18 urte-tik beherakoak.

SARITUAK

Lehen saria Arrasaten gelditu zen. Juan Jose Altunak eraikin

berriak margotu zituen eta epaimahaiak horixe baloratu zuen. "Originala eta ausarta izan da. Alde zaharrean egon arren eraikin berriak margotu ditu; joko gutxiago ematen du horrek eta zailagoa da". Bigarren saria Eneko Arraunza lekeitiarrak eskuratu zuen. Arrasateko onena, berriz, Iñaki Rivierek eskuratu zuen. Saritutako lanekin erakusketak bat egingo dute, eta gainontzeko lanak Monte eta Kajoi tabernetan jarriko dituzte. Hala, ekainaren 27tik aurrera bi tabernetan egongo dira ikusgai eta interesa dutenendako salgai.



Arrasateko alde zaharrera jende ugari gerturatu zen ikusmin handia sortu zuten margo lanak ikustera.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > EKON ETA RIP GONBIDATUEKIN HATORTXU ROCK JAIALDIAN

Iraganekoa oraindik ere indarrean dago

NON: Lakuntzan.

EGUNA: Egubakoitza, ekainak 19.

ZENBAT JENDE: Milaka lagun.

ESTILOAK: Punk-rocka, metala...

IKER BARANDIARAN > LAKUNTZA

Atzo, domeka, bukatu zen Hator-txu Rock. Presoei elkartasuna adierazteko ekimenak hamar urte bete ditu, eta urte guzti haue-tan esku hartutako talde gehie-nak izan ziren urteurrenean. Horietatik lau arrasatear: Ekon, RIP, Des-Kontrol eta Governors.

Egubakoitzean izan ginen han, baina Beriain guneko kon-tertuak bakarrik ikusi ahal izan genituen.

TALDE HANDI ASKO

Itzela, Hatortxu Rocken antola-kuntza; eta itzela, baita jaialdia egiteko aukeratutako ingurunea ere. Sevillako Reincidentes izan zen lehena. Euskal Herrian eza-gun egin eta gerora kanpoan famatuak egin zituzten klasiko-ak eskaini zituzten.

Horien ostean, Gatillazo. Eva-risto nekaezinak taldea berrosatu egin du eta gogotsu irten zen agertokira. Ondo jotzeari baino gehiago, ondo pasatzeari, jende-ari pentsa arazteari eta zirika-tzeari ematen dio garrantzia. Eta hala egin zuen.

Evaristoren seme Kaotiko igo zen ondoren agertokira; eta gaz-terriak gustura hartu zituen Agu-raingoan eresiak. Gauerdie-kin talde beteranoen txanda hel-

du zen. Lekeitioko Etsaiak taldea bizirik dago eta, dirudienez, borroka gogo handia daukate.

EKONEN ITZULERA

Arrasateko Ekon taldea berriro elkartu izanaren *erruduna* Hator-txu izan da; eta han egin zuten aurkezpena: pantalla erraldoiak -ia futuristak-, eszenaratze zain-dua, Sorkunekin aritzen zen Libe bigarren ahotsean, eta talde oso sendoa ikusi genuen agertokian. Metala, rocka, rapeatuak eta esti-loa barra-barra.

RIP, GONBIDATUEKIN

Eta 02:00ak jotzeaz, askok espe-ro zuten unea. RIP bukatu zen, baina inoiz elkartu izan dira. Hainbat abeslarik lagunduta, eta *Osoron* baxu jotzaile, Jul eta Txe-rra Bolinagak 80ko hamarkada-ko euren eresiak jo zituzten.

Mondra kantuaeren Elkoro-barrutiaren bertsioa a-capella bozgorailuetan eta ikusleak hasieratik zoratzear. *Mundo Muerto* hasi zuten, baina Julek gitarrako sokak birritan apurtu zituen. Horren ostean, ez zen atsedetik izan: Ekon-eko Juan, estilo handiarekin; Kop taldeko Juanra gogor; Des-Kontrol-eko abeslariak salto baten; Carroce-rias Betoñoko Iker eta Belen punk ukitua ematen; Obligaciones taldeko *Pela* jarrera rockeroenare-kin; Kaotikokoak; Feos Pero Majos-ekoen umorea; eta Kuraia-ko *Apoa*-ren ahots txorroa. Buka-tzeko, Etsaiakekoak eta Mondra guztien artean. Gogoratzekoa!



Ikusle ugari izan zituzten aurrean, RIP taldearen kantuak entzuteko irrikan.

IKER BARANDIARAN



Corazon del Sapo eta Kuraia taldeetan aritutako *Apoa*-k ere bi kantu abestu zituen RIP taldearekin.

I.B.

MUSIKA > 3.60 ARETOAREN AGURRA

Bizardunak taldearen folk erradikala, Arrasatera

Datorren zapatuan, 3.60 aretoan izango da Iruñeako taldea, Santakruz apaiza eta Irlandako folka errebindikatuz

I.B. > ARRASATE

Datorren astean ospatuko dute Arrasateko 3.60 aretoaren agurra. Bost urte luzeotan aretoa abiara-zi eta egitarau zabala antolatu dutenek atsedean hartzea eraba-ki dute. Horretarako, jai itzela prestatu dute, baina hori dato-rreren astean (egubakoitzean) zabal iragarriko dizuegu.

Agurreko jaietan esku hartuko duten musika talde ugarien arte-an bada bat askoren artean nabar-mentzekoa dena: Bizardunak. Iruñean sortua, ez du parekorik momentuz.

Talde horren atzean Iñigo Garces iruindarra dagoela jaki-nez gero, aurreikusitako daiteke iru-dimena soberan izango dutela, eta hala da. Garces Mermaid, Basque Country Pharaons, Black Lagun eta beste talde batzuen sortzailea ere bada.

DISKOA KALERATU BERRI DUTE


Garcesek Iruñeako (batez ere) eta beste leku batzuetako musi-kari eskarmentodun eta *mozkorti-ak* lortu eta bederatzi lagunez osatutako taldea sortu du, Producciones Serrano etxearekin diskoa kaleratu berri duena.

Eurek argi eta garbi esaten dute zer estilo lantzen duten: Folk Radical Vasco. Hala, Irland-ako folkeko bost kantu eta eurek sortutako beste lau batu dituzte diskoan. Sierra Maestrako (Kuba) gerrilleroak, euskaldun eta irlandar langile izaera, Zuma-lakarregi eta Santakruz apaiza dituzte gogoan, besteak beste.



Musikari eskarmentodun eta *mozkortiek* osatzen dute Bizardunak talde berria.


BIZARDUNAK



Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikusbizuna Goiena Telebistan Ekainaren 22tik 26ra, 20:45etik 21:15era.

Errepikapena: hurrengo eguneko 13:45ean; zapatuan 10:00etan eta domekan 14:15ean

Aretxabaletan maiatzaren 9an eta 10ean grabatutako ekitaldiak



Eta datorren astean... Arrasaten grabatutako ikuskizunak.

GURE TALDEAK

La Madriguera



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Juantxu, Txipi, Nekora, Vilvi eta Sergio.

JOSETXO ARANTZABAL

"Egiten dugun lana besteek baloratzea da dugun erronka"

'Nekora'-k, Juantxuk, 'Vilvi'-k, 'Txipi'-k eta Sergiok osaten dute La Madriguera taldea; bost kantuz osatutako lehen diskoa kaleratu dute

Arrasaten eta Caceresen grabatutako lana da eta dagoeneko salgai jarri dute Eskoriatzako, Aramaioko eta Arrasateko taberna batzuetan

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Bost kantu bakarrik grabatu dituzte, baina gustura daude emaitzarekin. La Madriguerakoek hainbat kontzertu egin dituzte Arrasateko hainbat auzotako jaietan. Orain, udarako kontzertuak lortu nahian dabilta. Eurekin egin dugu berba.

Disko berria kaleratu duzue. Nolako diskoa da?

Lehenengo diskoa denez, gure estiloa islatzen duen maketa txikia dela esango genuke, disko zuzena eta oso esanguratsua da.

Dagoeneko salgai jarri dugu ibarreko hainbat tabernetan; hain zuzen, Eskoriatzako Kokots tabernan; Aramaioko Anboto eta Añai tabernetan; eta Arrasateko Equis, Aldapa, Pippol eta Lennon tabernetan.

Diskoa bi estudioan grabatu duzue. Zergatik?

Lehenengo grabaketak Arrasateko Shot! estudioan egin genituen. Ondoren, Caceresko herri txiki bateko Yenimusic estudioan ahotsak eta gitarrak birgrabatzea proposatu ziguten eta ez genuen birritan pentsatu. Esfortzu ekonomiko handia egin genuen, baina emaitzarekin gustura gaude, eta ez gara damutzen.

Bost kantu bakarrik grabatu dituzue. Gutxi dira. Zergatik?

Bai, gutxi dira. Baina arazoa denbora falta izan da. Lagun batzuek diskoa grabatzeko eskatu ziguten kontzertuak lotzeko eta gure lana ezagutzera emateko. Grabaziorako 23-F taldeko bateria-jotzailearen laguntza eskatu

genuen, bateria-jotzaile barik geratu ginen-eta. Oso gustura geratu ginen hark egindako lanarekin.

Dena den, disko luzeagoa grabatzeko irrikaz gaude. Horren harira, akordioa egin dugu Yenimusic diskoetxearekin bigarren lana eurekin grabatzeko.

Zaila da talde txikiendako diskoa grabatzea?

Guretzat oso zaila izan da. Garbi dago dirua eta kontaktuak dituzten taldeek erraztasun handiagoak dituztela aurrera egiteko. Baina gu ilusioz beterik gaude eta gure eskuetan dagoen guttia egingo dugu gure ametsak betetzeko.

Zuen estilo gustukoetan 80eko hamarkadako punk eta rock urbanoa dago?

Orokorrean bai. Guk entzundako musikaren antza duen musika egiten dugu. Egindako musika entzutea da bide onena, egiten duguna ulertu ahal izateko; eta nork bere ondorioak aterako ditu. Esan beharra dago guk egindako musika estiloa gure inguruan ez dela oso ohikoa, baina espero dugu harrera ona izatea. Dena den, gure erronka inpor-



Auzoko rockaren nostalgia

La Madriguera taldea Arrasatekoa da eta, zelanbait esanda, 23-F taldeko errautsetatik sortua da.

Hala ere, 80ko hamarkadako punka presente duten arren, kasu honetan auzoko rocka edo rock urbanoa deritzona dute oinarri. Hala, disko honetako bost kantuetan Parabellum eta Piperrak gogora ekartzen dizkigute, baina baita Platero y Tu eta Extremoduro ere. Azken hori hitzetan batez ere, gaztelaraz abestutako kantu hauetan La Madriguerakoek kaleko poesia lantzen dutelako.

Iker Barandiaran.

tanteena da egiten dugun lana besteek baloratzea. Batez ere, 80ko hamarkadako taldeak gustatzen zaizkigu: Barricada, La Polla Records eta Platero y Tu.

Taldeko kide batzuk 23-F taldeko kide ohiak zarete. Ze ezberdintasun daude bien artean?

Ezberdintasun handia dago. La Madrigueran hiru kide berriak gara. Hortaz, ideia berria eta estiloa hobeto zehaztu ditugu. Esango genuke La Madriguera eta 23-F taldeek ez dutela antzik. Hori bai, taldeko kide berriek ilusioa piztu dute, eta ilusioa lan egiteko ezinbestekoa da!

Hainbat zuzeneko eman dituzue Arrasateko auzotako jaietan. Kontzertu gehiago lotu dituzue?

Oraingoz, ez dugu kontzertu gehiagorik lotu, baina uda aldera emanaldiren bat egiteko esperantza dugu.

Nolakoak zarete zuzenekoetan?

Kontzertuak ikustera etortzen direnek esan beharko dute! Guk zuzenekoetan dena ematen dugu. Gure kantuak eta bertsiolak jotzen ditugu.

iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Iaz 423.000 euroan tasatutako etxea, lorategiarekin, orain 300.000 euroan salgai. 625-13 12 59

Aretxabaleta. Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Prezio negoziagarria. 626-60 11 07

Azpeitia. Loiolabiden etxe ederra salgai, 3 gela eta egongela handia, denak balkoira irteerarekin. 2 balkoi, 2 komun eta sukaldia trasteroarekin. Igo-gailua eta berogailua ditu eta teiltuan terraza komunitarioa ere bai. Prezio jaitzi dugu. 360.000 euro garajearekin. 658-74 49 02

Bilbo. Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, Solokoetxe inguru-lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko moduko. 74 m². 4 gela, sukaldia eta komun zaharberriak, berogailu individuala gas naturalarekin, igogailu berria, trasteleku handia eta garaje plaza bat alokairuan aukeran. 94-415 67 49. Telefonoa: 656-77 20 50. Posta: inakipb@euskalnet.net.

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldia, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzekaldean. 20 metroko garaje itxia. 617-20 60 06

Oñati. Duplexa salgai Ultzege kalean, eraikin berrian. Garaje eta trastelekuarekin. 670 85 85 41

Oñati. 76 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua. Dena kanpoaldara begira. Trasteleku eta garajea. 679-17 48 36

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldia, egongela, komuna eta trasteleku, argi patioan. 652-70 12

49

Oñati. Kale-kalean eta estreinatze dagoen apartamentua salgai. Bi logelakoa. Garaje itxia aukeran. 39.500.000 pezeta. 665-71 42 69.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Duplex polita ematen da errentan, erdigunean. Jantzia eta egoera oso onean. Bi autorentzako garajearekin. Ikasleek ez deitu. Rakel. 629 46 93 91

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsalde deitu mesedez. 646-68 05 86

Beasain. Etxebizitza alokatzen da Beasainen: 3 logela, egongela, sukaldia eta bainua. Dena kanpora begira eta balkoiarekin. 685-78 45 52

Eskoriatza. Berritutako baserria ematen da errentan. Deitu 18:00ak eta 21:00ak artean mesedez. 693-80 40 47

Etxarri Aranatz. Pisu alokatzen da Etxarri Aranazen. Interesatuek deitu 607-31 76 67 telefonora.

Jaca. Jacan bi logelako apartamentua alokatzen da abuzturako. Nahi izanez gero, hamabostaldirako. Guztiz osatua. Garajearekin eta igerilekura begira. Umeekin joateko aproposa. Harremanetarako deitu: 649-20 89 84 telefono zenbakira.

Landas-Soustons. Oporretarako eta asteburuetarako apartamentua alokatzen da, Landas-Soustonsen. Bi logela, egongela, sukaldia, terraza, trasteleku eta garajea. Tel: 606-504 526.

Igantzi. Nafarroan Bortzirietan Igantzi herrian etxe zahar berria 150 m². Herri lasaia, igerileku, frontoia, hondartza 20 kilometro. Etxeak 3 gela ditu, hauek bi ohe handiarekin eta

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

gehigarri bat haur batentzat; besteak bi ohetiki, sala, sukaldia, 2 komun eta patio txiki bat. Aproposa umeentzat. Astea 400 euro, hamabostaldia 700 euro. txillarenea@hotmail.es

Lapuebla. Etxea ematen da errentan uztailean eta abuztuan. 111 metro koadro. Sukalde horritua, bi logela, bikomun, egongela eta 35 metro koadroko terraza. Aparkaleku, igerileku eta berdegune komunak. Lapuebla (Arabar Errioxa). 653-71 89 11

Noja. Etxebizitza errentan. Golf zelaiaren ondoan. Bi logela, bi bainugela, sukaldia, egongela, terraza eta garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerileku. 635-75 35 29

Ondarroa. Etxe berritua eta hornitua alokatzen da. Prezioa 550 Å. Informazio gehiago 665-71 99 53 telefonon.

Oropesa del Mar. Oropesa del Mar-en, Marina De Or-en apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 50 metrora eta bainuetatik 100 metrora. Egoera oso onean eta prezio ekonomikoan. 617-779 018.

Peñiscola. 2 edo 4 pertsonerendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerileku txirristekin. 948-41 00 79 edo 616-95 04 00

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan Aretxabaletan. 669-92 62 12 edo 669-92 62 12

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 669-12 70 98

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610-91 33 40

Bergara. Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649-63 23 24 edo 696-38 10 07

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618-93 59 29

Bergara. Edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607-31 85 60

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke erdialdean. 658-77 90 46

Debagoiena. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. 645-72 92 87

Etxarri Aranatz. Alokatzeko pisu baten bila nabil Etxarri Aranazen edo inguruetan. Deitu 667-69 75 40 telefonora.

Lekeitio. Lekeitio urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. 658-70 19 53.

105. ETXEA OSATU
Aretxabaleta. Aretxabaleta erdialdean gela ematen da

errentan. 616-75 41 30

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan. 620-60 54 14

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. 662-63 76 33

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Eguzkitsu eta wi-fiarekin. Uztailean sartzeko. 677-98 59 14

Arrasate. Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636-91 93 81

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672-20 36 82

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrentzat. 666-21 88 95

Arrasate. Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675-71 57 03

Arrasate. Logela alokatuko nuke Arrasaten, ahal bada jende euskaldun, gazte eta langilearekin. Ekaineko lehen astetik sartzeko. 608-57 97 70

Arrasate. Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilerro. Unibertsitatetik gertu. 652-73 46 19

Arrasate. Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. Neskek bakarrik. 618-00 08 28

Arrasate. Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldia. Etxe argitsua. 670-04 27 41

Arrasate. Pertsona bat behar dugu beste hirurekin etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

Arrasate. Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Kanpoaldara, gas naturala, eta lasaia. 630-71 35 83

Arrasate. Logela ematen da errentan. 699-66 33 63

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egon-gela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsu. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699-28 99 06

Bergara-Arrasate. Logela errentan hartuko nuke. 658-77 90 46

Bergara. Logela hartuko nuke errentan Bergaran. 690-97 44 32

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670-85 86 68

Bergara. Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 628-45 10 37

Bergara. Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649-63 23 24 edo 696-38 10 07

Donostia. Donostian, Amara auzoan, Antso Jakitunaren etorbidean, pisu konpartitu batean, gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Gela argitsua, telebista edukitzeko aukerarekin. Deitu arratsaldean edo utzi mezua 943-11 10 88 telefono zenbakian.

Debagoiena. Debagoiena Ikastera datozen Erasmus ikasleentzako gelak behar dira Debagoienean irailaren hasieratik abenduaren amaiera arte. 656-77 66 32

Donostia. Antigua auzoan etxea osatzeko ikasle baten bila gabilta. Errenta: 240 euro inguru. Deitu telefono honetara: 685-70 17 09

Donostia. Pisu konpartitzeko pertsona bat behar da ekainetik aurrera. Nahiago egonaldi luzerako bada. Hondartzatik oinez 5 minutura dago, hirur logela ditu, egongela balkoiarekin, sukaldia eta komuna. Kanpora ematen du eta eguzkitsu da. Interesatzen bazazu idatzi helbide honetara arzaldua@hotmail.com edo deitu 690168734 telefonora.

Donostia. Gela 65 urteko emakume bati (irekia eta moderna) konpainia irekietan truke. Ezin hobeki kokatutako etxe ederren. Ez dira etxeko lanak egin behar konpainia baino ez. san-sebastian70@yahoo.es (669-96 23 55)

Donostia. 50 urteko emakumea, 12 urteko semearekin, eskaintzen da pisua konpartitzeko Donostia inguruan, konpainia eta etxeko lanekin laguntzaren truke. Gaztekeraz hitz egiten dut, baina nire semeak euskaraz bada.

Eskoriatza. Bi lagun behar dira 25 urteko neska eskoriatzar batekin etxea osatzeko, irailetik aurrera. Etxeak lau logela, komuna, sukaldia, egongela eta balkoia ditu. Lehen solairua da eta erdialdean dago. Egoera onean dago, gasa dauka eta Euskalteko konexioa, nahi bada. Nik txakurra daukat. Deitu telefono honetara: 606-74 42 37

Gasteiz. Ingeles filologiako hirur ikasle gara eta datorren urtean Gasteizen pisua konpartitzeko 2 lagun biler gabilta. Unibertsitatetik 5 minutura eta guztiz berritua. Interesatuek idatzi helbide hauetara: sorgintsu88@hotmail.com, olatx88@hotmail.com.

Zarautz. Zarautzen pisu bat partekatzeko pertsona bat behar da. Irailetik aurrera. Deitu telefono honetara: 658-71 66 93.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Anizuola. Arropen konponketak egiten ditut. 616-45 00 20

Aretxabaleta. 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943-79 54 21

Arrasate. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 663-65 78 43

Arrasate. Emakumea gertu umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663-65 78 43

Arrasate. Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketarako egiteko ere. Mari. 649-30 13 60

Arrasate. Emakume euskalduna lanerako gertu. 659-82 75 18

Arrasate. Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666-12 52 80

Arrasate. Ilea apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea moztu eta tintak emateko. 666-20 06 03

